

**Pasaiako Badia Biziberritzea:
Testuinguru Sozioekonomikoa,
Ekintzen Mapa, Ondorioak eta
Gomendioak**

Behin-betiko Txostena

2015ko maiatza





Aurkezpena

AURKEZPENA

X. Legegintzaldiko 2012-2016 Gobernu Programan argi eta garbi dago adierazita helburuetako bat dela Pasaiako badia biziberritzearen sustapena, eta helburu hori lortzeko, instituzio eta erakunde publiko eta pribatuen adostasun- eta koordinazio-esparru bat ezartzeko lan egin behar dela, Pasaiako badia biziberritzeko beharrezkoak diren lanak modu eraginkor eta adostuan antola daitezten.

Egiteko horren esparruan aurkezten dugu, hain zuzen ere, *Pasaiako badia biziberritzea: Testuinguru Sozioekonomikoa, Ekintzen Mapa, Ondorioak eta Gomendioak* izeneko txostena. Ikei research & consultancy aholkularitza-enpresak landu du txostena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ekimenez.

Balio erantsi handia duen dokumentua da, lehenik, auziaren eguneratze bat baita eta, bigarrenik, balizko balio katalizatzailea baitu, lankidetzaz-esparru batean Pasaiako badia biziberritzean aurrera egin ahal izateko, eta, hartara, inguru hori ongizate-eremu bihurtzeko, portu hiritar, lehiakor eta jasangarri batekiko elkarbizitza orekatu batean.

Txostenak Pasaiako badiaren kokapen sozioekonomikoa egiten du; mapa batean biltzen ditu biziberritzea egiteko proposamen zehatzak, erakunde zein agenteei egindako elkarriketetan identifikatu direnak; ondorio batzuk ateratzen ditu, eta zenbait gomendio ematen ditu.

Honako hauek dira txostenaren ondorioak: bai erakundeen, bai gizartearen ustez, Pasaiako badia biziberritzeari heltzeko eta herritarrengan sinesgarritasuna berreskuratzeko beharra dago; ezinbestekoa da inguru horretan premiaz jardutea; hausnarketa estrategiko bat egin beharra dago, eskualdeak geroko zer nahi duen definituko duena eta proiektu bultzatzaileak identifikatuko dituen, eta aurreko hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da inplikaturako erakundeek elkar ulertzea, modu eraikitzaile batean.

Bost dira egiten diren gomendioak: epe motzean egin daitezkeen ekintzei ekitea; Donostiako eremu funtzionaleko Lurralde Plana erabiltzea inguruaren lurralde-antolamendua gauzatzeko tresna gisa; Oarsoalderako Plan Estrategiko bat bultzatzea, badia biziberritzeko helburuei lagunduko diena; berriaz aztertzea Pasaiako badiaren ekonomia- eta enplegu-errealitatea, eta berriro lortzea erakundeek La Herrerari buruz adostasuna izan dezaten.

AURKEZPENA

Txosten honen ondorioek eta gomendioek balio behar dute badia biziberritzea modu erabakior eta eraginkor batean gauzatzeko oinarritzko eta beharrezko printzipioak indartzeko eta finkatzeko. Printzipio horien artean daude, besteak beste, lankidetzeta eta parte-hartzea, bai erakundeen artekoa, bai gizartearena.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke txosten hau lantzen lagundu duten guztiei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erreterria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia udalei, Pasaia Portu Agintaritzari, Oarsoaldeko Eskualde Garapenerako Agentziari, Gipuzkoako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialari eta La Herrera Herrira elkarteari. Eskerrak eman nahi nizkieke, halaber, Ikei research & consultancy aholkularitza-enpresari, egin duen lan bikainagatik.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA



AURKIBIDEA

SARRERA	8
I. ATALA: TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA	11
Aurkezpena: Badia Biziberritzeko Ekintza Plana	13
1. Demografia	15
1.1. Laburpen-elementuak	16
1.2. Biztanleriaren bilakaera	17
1.3. Bilakaera demografikoaren faktoreak	18
1.4. Biztanleriaren egitura	21
2. Enplegua, Prestakuntza eta Errenta	22
2.1. Laburpen-elementuak	23
2.2. Langabezia eta enplegarritasun maila	24
2.3. Prestakuntza maila	25
2.4. Errenta eta prestazio sozialak	26
3. Ekonomia eta Enpresa Jarduera	27
3.1. Laburpen-elementuak	28
3.2. Sektoreen araberako egitura	29
3.3. Dinamismo ekonomikoa	30
3.4. Industria-egituraren neurria eta enpresa nagusiak	32
3.5. Jarduera ekonomikoetarako lurra	33
4. Lurzorua, Etxebizitza eta Azpiegiturak	34
4.1. Laburpen-elementuak	35
4.2. Lurzorua erabilerak	36
4.3. Hirigintzako dentsitatea	37
4.4. Etxebizitza nagusien parkea	38
4.5. Portuko jarduerak	41
5. Komunikazioak, Garraioa eta Mugigarritasuna	43
5.1. Laburpen-elementuak	45
5.2. Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna	46
6. Osasuna eta Ingurumen Kalitatea	49
6.1. Laburpen-elementuak	50
6.2. Badiako uren kalitatea	51
6.3. Airearen kalitatea	52
6.4. Zarata	53
6.5. Osasuna	54
7. Berdeguneak eta Naturagune Babestuak	55
7.1. Laburpen-elementuak	56
7.2. Hiriko berdeguneak	57
7.3. Naturagune babestuak	59

AURKIBIDEA

II. ATALA: EKINTZEN MAPA	60
1. Herrera iparraldea eta mendebaldea berrantolatzea	70
2. Pasaiaiko itsas frontea: Trintxerpe eta San Pedro	71
3. Pasaiaiko arrantzako lonja: erabilera publikorako espazio berriak	72
4. Euskotren-eko topo geltokirako sarbideak	73
5. Herreratik portuko zirkulaziorako sarbidearen irtenbideak	74
6. Ziriza Etxea	75
7. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskaintza publikoa Pasaian	76
8. Igogailua Escalerillas-en	77
9. Proisa eraikina	78
10. Ulia-Jaizkibel eta itsas inguruko ekimenak	79
11. Txingurri erreka	80
12. Arrobitxulo ingurunearen berrantolaketa	81
13. Adif-en trenbideen kopuruaren murrizketa Antxon	82
14. Euskotren-eko topoa Antxon eta Erreterian lurperatzea	83
15. Luzuriagan etxebizitzaren eta ekipamenduen garapen urbanistiko berria	84
16. Luzuriaga eraikina	85
17. Papin-Molinao industrialdea	86
18. Artxipi parkearen egokitzapena eta bere lotura Lau Haizetarekin	87
19. Txalupa motordun zerbitzuak hobetzea	88
20. Portuko jarduerak eragindako kutsadura atmosferiko, akustikoa eta urena murriztea	89
21. Pasai Donibaneko saneamendua	90
22. Alabortza kala berreskuratzea	91
23. Nabalaldea industrialdea	92
24. Bidegorria eta Lezo-Pasai Donibane loturako espaloioak zabalitzea	93
25. Lezoko saihesbide berria	94
26. Lezoko Altamirako biribilgunea	95
27. Oiartzun ibaia, Zubitxo eta Altzate	96
28. Lezo-Gaintzurizketa plataforma logistikoa	97
29. GI-2638 eta N-1 errepideen arteko iparralde-hego lotura	98
30. Zinealdea-Lintziringaina	99
31. Oiartzundik igarotzen den trafikoa hobetzeko aukeren azterketa	100
32. Nekazaritza ekologikorako eremua Lezon	101

AURKIBIDEA

III. ATALA: ONDORIAK ETA GOMENDIOAK 103

ONDORIOAK 104

1. Pasaiaiko Badian esku hartzeko beharra premiazkoa da 105
2. Adostasuna Badia biziberritzeko eta herritarren sinesgarritasuna berreskuratzeko lana egin behar izatearen inguruan 106
3. Eskualdearen etorkizuneko bokazioa zehaztu eta proiektu eragileak identifikatuko dituen hausnarketa estrategikoa behar da 107
4. Erakunde- eragileen artean harremanak normalizatzea beharrezko abiapuntua da 108

GOMENDIOAK 109

1. Epe laburrera begira egin daitezkeen ekintzak abian jartzea 110
2. Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiketa Plana, Pasaiaiko Badia biziberritzeko lurralde testuinguru gisa 112
3. Pasaiaiko Badia biziberritzeko helburuak lortzen lagunduko duen Oarsoaldeko Plan Estrategikoa bultzatzea 112
4. Pasaiaiko Badiako errealitate ekonomikoaren eta enpleguaren inguruko azterketa espezifiko 112
5. Herrerari buruzko erakunde mailako adostasuna berriro lortzea 113

Eranskina: EGINDAKO ELKARRIZKETEN ZERRENDA ETA IZANDAKO BILERAK 114



Sarrera

SARRERA

Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Lurralde Plangintzako eta Hirigintzako Zuzendaritzak IKELri esleitu zion "Pasaiako Badia biziberritzeko ekintza-plana prestatzeko laguntza teknikoa" izeneko proiektuaren baitan egindako lanaren emaitza da.

Hasiera batean lortu nahi zen helburua bi dokumentu prestatzea zen. Haietako batek ekintza-plana jaso behar zuen bere horretan; hau da, prozesuan parte hartutako erakundeen eta eragileen arteko adostasuna lortutako jarduerak bildu behar zituen. Bigarren dokumentuak, aldiz, adostasunik ez zuten jarduerak jaso behar zituen, hauek identifikatu ostean, landu eta garatu ahal izateko.

Egindako lanak, Pasaiako Badiaren testuinguru sozioekonomikoa zehazteaz gain, Badia biziberritzearen ardura duten erakunde publikoek eta eragile sozioekonomikoek planteatutako proposamenak eta proiektuak jasotzen ditu. Dena den, ezin dezakegu esan proposamenen zerrenda hori ekintza-plana denik bere horretan; izan ere, arrazoi ugari dela eta, ezin izan da adostasunik bilatzeari eta proposamen bakoitzak lortutako adostasun eragingarriko mailari buruzko alderatzeari dagokion fasea burutu. Hori dela eta, txosten honek eragile batek edo gehiagok planteatutako ekintza guztiak (zehazki, hogeita hamabi dira) jasotzen ditu. Hori dela eta, adostasun maila ezberdina dute eta aurkezpenean ez da lehentasuneko irizpiderik aplikatu.

Lanak, ordea, parte hartutako eragile ugariarentzat biziberritze hitzak jasotzen dituen dimentsio ugariak ulertzeko prozesuan aurrera egitea ahalbidetu du: Portua-Hiriaren arteko harremana hobetzea, jarduera ekonomikoa sustatzea, interes naturaleko guneak hobetzea, hiri-berrikuntza, irisgarritasuna hobetzea, ingurumena lehengoratzeko, azpiegiturak eta garraio-zerbitzuak hobetzea eta ekipamendu soziokultural berriak eta hobeak garatzea.

Prestatutako txostena hiru bloke nagusitan egituratuta dago: lehenengoa Pasaiako Badiako testuinguru sozioekonomikoari dagokio. Horren helburua Pasaiako Badiaren oinarriko datuak eskaintzea eta arazo nagusiak identifikatzea da. Bigarren blokeak erakunde publikoen, herritarren ekimenen eta eragile sozioekonomikoen jarduera-proposamenen deskribapena jasotzen du Pasaiako Badia biziberritzeari dagokionez ("*Jardueren mapa*"). Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da lanaren helburua ez dela izan proiektu berriak asmatzea edo "sortzea"; izan ere, xedea lan horietan parte hartutako eragile ugariak planteatutako proposamenak modu tematikoan antolatzea eta jasotzea izan da. Azkenik, hirugarren blokean egindako lanaren ondorio eta gomendioak jaso dira .



SARRERA

Ikerketaren esparru geografikoa Pasaia, Errenteria, Lezo eta Oiartzun udalerriek eta Donostiako Bidebieta, Herrera eta Larratxo-Altza auzoek (Donostiako ekialdea) osatu dute. Urban Planean Pasaia Badia gisa definituta dagoen esparrua da.

2014ko abuztua eta 2015eko otsaila bitartean egindako lanean erabilitako metodologiari dagokionez, aipatu beharrekoa da testuinguru sozioekonomikoa eskuragarri dagoen informazio estatistikoan eta kualitatiboan oinarritu dela. Aipatutako datuak, batez ere, iturri edo erakunde ofizialetakoak dira. Edonola ere, bigarren mailako informazio-iturriak dira eta ez da ex profeso estatistikako informazio berririk sortu.

Bestalde, dokumentuan sartutako jarduera-proposamenen identifikazioa eta deskribapena eskuragarri dagoen bibliografiaren azterketaren, hemerrotekan egindako kontsulten eta, Eusko Jaurlaritzak hala proposatuta, IKEIk Pasaia Badia inguruan lan egiten duten erakunde publikoekin, herritarren ekimenekin eta eragile sozioekonomikoekin egindako elkarrizketen emaitza da. Zehazki, elkarrizketa espezifikoak Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Pasaia Badia, Lezoko, Errenteriako, Oiartzungo eta Donostiako udalekin, Oarsoaldea eskualdeko garapen-agentziarekin, Pasaia Badia Portu Agintaritzarekin, Herrera Herrirarekin eta Gipuzkoako Bazkondearekin egin dira. Egindako elkarrizketen bidez, identifikatutako jarduera bakoitzari buruzko informazioa jaso da. Informazio hori partekatu ahal izatea ikerketa honen ekarpen garrantzitsua da bere horretan; izan ere, gaur egun mahai gainean dauden proiektuei buruzko ezagutzaren testuinguru komuna sortzen, heltze maila gerturatzeko eta inplikaturako eragileak identifikatzeko laguntzen du.

Baina beharrezkoa da lan honetan ekarpenak egiteko garaian kontsultatutako erakundeen inplikazio maila ezberdina azpimarratzea. Aurkeztutako txostenaren adostutako benetako Ekintza Plana formulatzea eragotzi duen gorabehera horren ondorioa da. Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da Pasaia Badia Udalak azterketa partekatuan sartu ahal izateko alde aurretiko baldintza gisa ezartzen duela Pasaia Badia Udalaren eta Portu Agintaritzaren arteko harreman normalizatuak berreskuratzea.

Amaitzeko, esan beharrezkoa da txostenak, mugak izan arren, Pasaia Badia errealitate sozioekonomikoari eta identifikatutako 32 jarduera-proiektuei buruzko informazioa modu antolatuan, egituratuan eta eguneratuan jasotzea lortu duela. Hori dela eta, Pasaia Badia biziberritzearekin lotutako irismen handiagoko helburuei aurre egin ahal izateko beharrezko abiapuntua dela esan dezakegu.





I. ATALA

Testuinguru Sozioekonomikoa

AURKIBIDEA

Aurkezpena: Badiá Biziberritzeko Ekintza Plana	13
1. Demografia	15
1.1. Laburpen-elementuak	16
1.2. Biztanleriaren bilakaera	17
1.3. Bilakaera demografikoaren faktoreak	18
1.4. Biztanleriaren egitura	21
2. Enplegua, Prestakuntza eta Errenta	22
2.1. Laburpen-elementuak	23
2.2. Langabezia eta enplegarritasun maila	24
2.3. Prestakuntza maila	25
2.4. Errenta eta prestazio sozialak	26
3. Ekonomia eta Enpresa Jarduera	27
3.1. Laburpen-elementuak	28
3.2. Sektoreen araberako egitura	29
3.3. Dinamismo ekonomikoa	30
3.4. Industria-egituraren neurria eta enpresa nagusiak	32
3.5. Jarduera ekonomikoetarako lurra	33
4. Lurzorua, Etxebizitza eta Azpiegiturak	34
4.1. Laburpen-elementuak	35
4.2. Lurzoruaren erabilerak	36
4.3. Hirigintzako dentsitatea	37
4.4. Etxebizitza nagusien parkea	38
4.5. Portuko jarduerak	41
5. Komunikazioak, Garraioa eta Mugigarritasuna	44
5.1. Laburpen-elementuak	45
5.2. Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna	46
6. Osasuna eta Ingurumen Kalitatea	49
6.1. Laburpen-elementuak	50
6.2. Badiako uren kalitatea	51
6.3. Airearen kalitatea	52
6.4. Zarata	53
6.5. Osasuna	54
7. Berdeguneak eta Naturagune Babestuak	55
7.1. Laburpen-elementuak	56
7.2. Hiriko berdeguneak	57
7.3. Naturagune babestuak	59

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

Lanaren helburuak

- Pasaiako Badiaren testuinguru sozioekonomikoa egitea, haren inguruko deskribapen-nagusiak ezagutzeko eta landu beharreko arazo nagusiak identifikatzeko.
- Testuingurua lehendik eskuragarri dagoen informazioa oinarritzat hartuta egiten da.

Hauek dira landutako gaiak:

- Demografia
- Enplegua, Errenta eta prestakuntza
- Enpresa jarduera eta ekonomia
- Lurra, etxebizitza eta azpiegitura
- Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna
- Osasuna eta ingurumen-kalitatea
- Berdeguneak eta natura-gune babestuak

Erabilitako datuen iturriak eta dokumentu-erreferentziak

- Eustat. Migrazio-mugimenduak. Datuen ustiapen espezifikoa.
- Eustat. Pertsonen eta familien errenten inkesta
- Udalmap, Eusko Jaurlaritza
- Udalplan, Eusko Jaurlaritza
- Udal-plangintzak
- Lanbide. Lan merkatuko estatistikak
- Eskualdeko Enplegu Planaren Diagnostikoko zirriborro-dokumentua Oarsoaldea eskualdeko agentzia
- Eskualdeko mugigarritasuneko diagnostikoa eta plana. Oarsoaldea eskualdekoa garapen agentzia
- Pasaiako Badiā Biziberritzeko bi ekintzen osasun arloko inpaktuaren ebaluazioa (arrantza-lonja berria eta La Herrerako (Iparra eta mendebaldea) berrantolaketa. Eusko Jaurlaritza
- Giport, Pasaiako portuarekin zuzenean eta zeharka lotutako enpresei eta enpleguari buruzko ikerketa
- Sprilur. Industrialdeei eta industria-pabilioiei buruzko datuak
- Pasaiako portuko etorkizuneko egitura-azterketa. Orientazio estrategikoak
- Ingurumen arloko afekzioaren kontrol eta zaintzarako plana Pasaiako portuaren inguruan
- Pasaiako portuko azpiegituren gida-plana Ingurumen arloko Iraunkortasuneko txostena - II. liburukia. Pasaiako Portuko Agintaritza, 2011
- Labein, Pasaiako portuko jarduerak bere ingurunean sortutako soinu mailen ebaluazioa. Ingurumen arloko afekzioaren kontrol eta zaintzarako plana Pasaiako portuaren inguruan
- URA "EAEko trantsizio-uren eta kostaldeko uren jarraipen ekologikoko sarea". Azti-Tecnalia, 2014
- Pasaiako Portuko Agintaritza. 2012ko Iraunkortasuneko Txostena

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

Oarsoaldeako adierazle soziodemografiko nagusiak

	Adierazlea	Errenteria	Lezo	Oiartzun	Pasaia	GIPUZKOA	EAE
DEMOGRAFIA	▪ Biztanleriaren aldaketa-tasa 2003-2013 artean (%)	2,0	0,7	6,3	-1,8	4,3	3,8
	▪ Hazkunde begetatiboa (mila biztanleko 2003-2012)	1,3	3,2	4,2	-0,8	1,1	0,5
	▪ Kanpoko migrazio-saldoa (mila biztanleko 2003-2012)	3,1	1,3	2,1	-1,2	1,2	0,5
	▪ Barne migrazio saldoa (mila biztanleko 2008-2012)	2,4	-1,1	0,2	-0,3	0,0	-
	▪ Migrazio-saldoa Oarsoaldearekiko (mila biztanleko 2008-2012)	1,2	-1,2	0,1	-2,0	-	-
	▪ Kanpoko biztanleria (%)	5,3	3,2	2,8	7,7	6,5	6,7
	▪ Gehiegizko zahartze indizea (75 urte eta gehiago)	10,4	7,0	7,9	12,7	10,4	10,6
ENPLEGUA / PRESTAKUNTZA	▪ Langabezia-tasa (2014ko 4. hiruhilabetekoa)	15,7	11,7	10,3	16,2	13,3	15,3
	▪ Enplegagarritasun indizea (Iturria: Lanbide)	Oso baxua	Altua	Oso altua	Oso baxua	-	-
	▪ Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dutenak	56,1	59,3	62,0	56,2	62,4	62,3
	▪ Errenta personal erabilgarria (€ 2011)	14.916	15.449	16.866	14.291	17.384	16.711
	▪ Oinarrizko errenta jasotzen duten bizikidetz-unitateak (mila biztanleko)	26,6	20,3	13,5	35,5	19,7	28,7
EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERA	▪ Industria-sektorean lan egiten duten 16 urte eta gehiagoko biztanleak (2011)	17,8	17,8	17,5	13,2	23,6	19,9
	▪ Industria sektoreko establezimenduen pisu erlatiboa (2013)	6,3	18,6	11,2	3,6	8,1	7,2
	▪ Establezimendu kopuruaren aldaketa-tasa 2008-2013 aldian (%)	-22,8	-18,3	-11,2	-28,1	-14,1	-12,1
	▪ Industria-establezimenduen batez besteko tamaina (langile kopurua)	10,3	11,0	9,8	4,6	14,2	14,2
	▪ Jarduera ekonomikoetarako hutsik dagoen lurzorua okupatuta dagoenaren %	23,7	30,0	53,7	0,0	43,0	51,5
LURZORUA, ETXEBIZITZA ETA AZPIEGITURAK	▪ Azalera artifizializatuak (% 2013)	14,3	17,3	6,6	13,7	6,5	6,7
	▪ Etxebizitza dentsitatea (etxebizitza / Ha.)	68,0	104,0	47,8	141,9	71,1	60,1
	▪ Famili etxebizitzak batez besteko antzinatasuna (urteak)	40,7	35,9	34,9	49,3	40,3	39,7
	▪ Etxebizitza nagusien erosotasun indizea (1-100)	70,4	66,9	72,5	65,1	72,3	72,0
GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA	▪ Ibilgailuak (ibilgailuak biztanleko) (2013)	0,40	0,44	0,55	0,37	0,43	0,43
	▪ Trafiko istripuak (mila biztanleko, 2013)	2,0	20,7	27,8	0,8	9,2	8,8
BERDEGUNEAK ETA NATURAGUNE BABESTUAK	▪ Hiriko berdeguneak (biztanleko m2)	13,9	11,4	19,1	5,0	18,2	15,6
	▪ Berdeguneak (EAEko ranking-a)	156	174	118	222	-	-
	▪ Kontserbazio bereziko eremuak (LIC/ZEC) (lurraldearen %)	52,4	17,2	50,9	72,4	19,4	17,1



1.


DEMOGRAFIA

- 1.1. Laburpen-elementuak
- 1.2. Biztanleriaren bilakaera
- 1.3. Bilakaera demografikoaren faktoreak
- 1.4. Biztanleriaren egitura

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.1 DEMOGRAFIA: Laburpen-elementuak

- Pasaiako Badiak biztanleria-igoera txikia izan du azken hamarkadan, baina Gipuzkoakoa baino apur bat txikiagoa izan da. Donibane eta Antxo barrutietan, dena den, biztanleria kopuru oraindik ere gutxitzen ari da. Portaera demografikoa ez da, ordea, homogeneous izan. Izan ere, Donibanen eta Antxon biztanle kopuruak behera jarraitzen du.
- Pasaiak izan ezik, azken urteotan Badiako udalerrri guztietan gertatu dira hazkunde begetatiboa eta kanpoko migrazio-saldo positiboa.
- Oarsoalde eskualdeko barneko migrazio-saldoa positiboa da Erreterian eta Oiartzunen izandako bilakaera onari esker. Izan ere, EAEko beste udalerrri batzuetako biztanleriaren sarreraren eta irteeraren arteko balantzea negatiboa da Lezoren eta Pasaiaren kasuetan.
- Oarsoaldeko eskualde baitako mugimenduei dagokienez, Erreteriak eta Oiartzunek saldo garbi positiboa dute. Erreteriarren kasuan, gainera, hiriburuko biztanleriaren hartzaile garbia da.
- Lezok eta Oiartzunek dute profil gazteena. Aldiz, Badiako beste esparru batzuetako zahartze-indizea Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da.
- Badiako udalerrietan bizi direnen % 5,6 da atzerritarra. Ehuneko hori Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da (2013an % 6,5ekoa). Hegoamerikako immigrazioa da ugariena.
- Pasaiako Badiako heterogeneotasun soziologikoa bertakoak ez diren pertsonen proportzioan ere ikus daiteke: Euskadiz kanpoko komunitateetan jaiotako biztanleriaren indizeak honako hauek dira gutxi gorabehera: % 25ekoa Erreterian, Altzan eta Trintxerpen, eta % 9koa Oiartzunen.



TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.2 Biztanleriaren bilakaera


Pasaiako Badiako biztanleriak igoera arina izan du azken hamarkadan, baina Gipuzkoako baino askoz ere txikiagoa izan da.

- Pasaiako Badiako* biztanle kopurua 99.434koa zen 2013an. 2003-2013 aldian, % 1,7 egin du gora (% 4 Gipuzkoan).


Portaera demografikoa, dena den, ez da homogeneoa izan: Izan ere, Donibanen eta Antxon biztanle kopuruak behera jarraitzen du.

- Biztanleriaren igoera bereziki handia da Oiartzunen (% +6,3). Horren nabarmena izan ez den arren, Errenteriakoa ere aipatu beharrekoa da, igoera jarraitua izan baitu. Donibanen eta Antxon, ordea, oraindik ere jaitsiera handia da: -% 7,7 eta % -4,9koa hurrenez hurren.
- 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetako datuak aztertuz, nabarmentzekoa da 1970-1975 epean ikusten den biztanleriaren irabazia udalerrri guztietan eta Errenterian (+35%) eta Lezon (+23%) batez ere.

* Pasaia, Errenteria, Lezo eta Oiartzuneko biztanleria sartzen da, baita Bidebieta, Herrera eta Larratxo-Altzakoak.



Iturria: Eustat.



Iturria: Eustat.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.3 Bilakaera demografikoaren faktoreak

Eskualdeko biztanleria ugartu izanaren arrazoiak izan dira hauek: hazkunde begetatiboa eta kanpoko migrazio-saldoa (Pasaiaren kasuan izan ezik).

- 2003-2012 aldian, Pasaiaren kasuan izan ezik, Oarsoaldeko udalerriek hazkunde begetatibo positiboa izan zuten (heriotzak baino jaiotza gehiago) eta bereziki azpimarratu beharreko kasuak dira Lezokoa eta Oiartzungoa. 2011. urtean, emaitza positiboaren joerarekin bat egin zuen Pasaiak.
- Kanpoko migrazio-mugimenduei dagokienez, aipatu beharrekoa da Pasaiak izan ezik, Oarsoaldeko udalerri guztiak izan dutela kanpoko migrazio-saldo positiboa (emigratzaileak baino etorkin gehiago) azken urteotan. 2012an, ordea, Pasaiak ere bat egin zuen joera positibo horrekin.

Hazkunde begetatiboaren tasa			
<i>(mila biztanleko tasa)</i>			
	2003-2008	2008-2012	2003-2012
Donostia	-1,1	-1,4	-1,3
Errenteria	1,4	1,0	1,3
Lezo	3,0	3,4	3,2
Oiartzun	4,6	3,8	4,2
Pasaia	-1,2	-0,6	-0,8
Gipuzkoa	1,2	1,1	1,1

Iturria: Eustat, Migrazio mugimenduen estadistika.

Kanpoko migrazio-saldoa			
<i>(mila biztanleko tasa)</i>			
	2003-2008	2008-2012	2003-2012
Donostia	-0,7	0,2	-0,3
Errenteria	2,1	4,8	3,1
Lezo	1,2	1,8	1,3
Oiartzun	2,4	1,4	2,1
Pasaia	-1,9	-0,4	-1,2
Gipuzkoa	1,2	1,2	1,2

*: EAE kanpoko-migrazioa.


Iturria: Eustat, Migrazio mugimenduen estadistika.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.3 Bilakaera demografikoaren faktoreak

Barneko migrazio-mugimenduak* ere positiboak izan ziren 2008-2012 aldian.

- Barneko migrazio-mugimenduei dagokienez (EAEko beste udalerrri batera doazen edo handik datozen pertsonak), 2008-2012 aldian, Oarsoaldeak migrazio-saldo positiboa izan zuen (mila pertsonako 1,18koa).
- Udalerriak, Errenteria (mila pertsonako +2,39) eta Oiartzun (mila pertsonako +0,24) izan dira barne-migrazioan biztanleriari dagokionez igoera garbiak izan dituztenak Pasaiarekin (mila pertsonako -1,96) eta Lezorekin (mila pertsonako -1,20) alderatuta. Bestalde, Oarsoaldeak Donostiatik datozen biztanle gehiago jasotzen du udalerrri hartara "kanporatzen" dituenak baino.



* EAEko udalerrien arteko mugimenduak hartzen dira kontutan.
Iturria: Eustat.


TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.3 Bilakaera demografikoaren faktoreak

Eskualde baitako migrazio-saldoari dagokionez, Erreterria eta Oartzun dira udalerrri hartzaile nagusiak

- Badiako udalerrien arteko mugimenduen azterketak interes berezia du. Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da Erreterriak eta Oartzunek saldo positiboa dutela eskualde baitako (Oarsoaldea) mugimenduei dagokionez. 2008-2012 aldian, hurrenez hurreneko ratioak milako 1,2 eta 0,1koak izan dira. Erreterria ere Donostiako biztanleen hartzaile garbia da (udalerrri hartara joandako pertsona kopurua baino handiagoa iritsi da bertara). Oartzunen kasuan, aldiz, saldo hori ia hutsala izan da.
- Aurkako joera bizi du Pasaia. Izan ere, eskualde baitako mugimenduetan saldo negatiboagoa du (mila pertsonako -2koa) eta zerrendako hurrengo postuan dago Lezo (mila pertsonako -1,2koa). Dena den, Donostiari dagokionez bi udalerrietako saldo garbia positiboa da.

Migrazio-saldoa. Oarsoaldekoarekin alderatutako batez bestekoa 2008-2012 %.



Iturria: Eustat.

Barneko migrazio-mugimenduak (2008-2012 aldiko urteko batez bestekoa)

	NORAKO UDALERRIA							
	Donostiara	Erreterriara	Lezora	Oartzunera	Pasaia	Donostialdeako beste batzuetara	EAEko gainerako tokitara	GUZTIRA
Donostia		403	46	61	333	660	1.271	2.774
Erreterria	331		49	64	77	76	234	830
Lezo	38	53		9	21	9	36	166
Oartzun	62	66	8		11	19	58	223
Pasaia	293	109	19	13		40	93	566
Donostialdeako beste batzuk	524	77	7	18	36	432	509	1.604
EAE, gainerakoa	1.333	216	31	61	83	442	38.567	40.733
TOTAL	2.581	923	159	225	561	1.677	40.770	

Iturria: Esplotazio espezifikoa. Eustat.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

1.4 Biztanleriaren egitura


Lezok eta Oiartzunek dute profil gazteena. Aldiz, Badiako beste esparru batzuetako zahartze-indizea Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa da

- Lezok eta Oiartzunek (Altza auzoaz gain) Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoak diren zahartze- eta gehiegizko zahartze-indizeak dituzte. Aldiz, San Pedrok, Donibanek eta Miracruz-Bidebieta eremuak Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa den adinekoren proportzioa dute. Toki horietan, zahartze-indize handieneko biztanleriak feminizazio-kuota handiagoak biltzen ditu; hau da, biztanleria osoa kontuan hartuta, emakumeen ordezkartza handiagoa da.
- Pasaia Badiako biztanleriaren batez besteko adina 43,3 urtekoa da; alderaketa eginez gero, kopuru hori inguruko udalerrietakoa baino handiagoa eta Gipuzkoako batez bestekoa baino apur bat handiagoa da (43,1 urte).
- Beste komunitateetan jaiotako biztanleriaren indizeak, berriz, honako hauek dira: % 25ekoa Errenterian, Altzan eta Trintxerpen, eta % 9koa Oiartzunen.

Zahartze-indizeak eta kanpoko biztanleria. 2013

	Batez besteko adina	Gehiegizko zahartzearen indizea (75 urte eta gehiagoko biztanleria %tan)	Mendekotasun-indizea (biztanleria <16 urte eta >64 urte %tan)	Beste erkidego batean jaiotako biztanleria	Atzeritarak Guztira (2009)
Pasaia	44,2	12,7	57,0	19,6	7,7
- Donibane	45,3	13,5	60,6	11,7	6,2
- San Pedro	45,3	13,1	58,0	20,0	7,7
- Antxo	44,0	12,9	60,3	17,3	7,4
- Trintxerpe	43,5	12,0	52,7	24,1	8,5
Donostia (Pasaia Badi)	43,7	9,7	50,4	26,1	6,2
- Altza	43,0	8,5	46,9	27,1	6,2
- Miracruz-Bidebieta	45,4	12,8	59,8	23,7	6,4
Errenteria	43,5	10,4	55,5	24,7	5,3
Lezo	41,1	7,0	41,8	16,8	3,2
Oiartzun	41,3	7,9	50,5	9,1	2,8
Pasaia Badi	43,3	10,1	52,9	22,2	5,6
Gipuzkoa	43,1	10,4	53,3	17,0	6,5

Zahartze-indizea 2013an (65 urte eta gehiagoko biztanleria %tan)



Iturria: Udalmap.



2.

ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA ETA ERRENTA

- 2.1. Laburpen-elementuak
- 2.2. Langabezia eta enplegarritasun maila
- 2.3. Prestakuntza maila
- 2.4. Errenta eta prestazio sozialak


TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

2.1 ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA ETA ERRENTA: Laburpen-elementuak

- Oarsoaldean langabezia tasa Gipuzkoako langabezia tasa baino altuagoa izan da tradizionalki. Aktibitate tasa, langabezia tasa eta enplegarritasun indizeari dagozkien emaitzei buruz, Errenteria eta Pasaia dira lan merkatuko adierazle txarrenak azaltzen dutenak
- Erregistratutako langabetuen % 67a zerbitzu sektoretik datoz, eraikuntzatik % 15 (Gipuzkoan % 8a bakarrik) eta industriatik % 12a.
- Badiako biztanleriaren prestakuntza maila Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik dago. Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dutenen proportzioa handitu egin da azken urteotan baina Gipuzkoakoaren azpitik jarraitzen du.
- Errenta mailari dagokionez, Pasaia, Errenteria eta Lezok Gipuzkoako udalerrien azken postuetan daude (87 udalerrien artean 86., 85. eta 80. lekuan kokatzen dira)

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

2.2 Langabezia eta enplegarritasun maila



Iturria: Lanbide

Aktibitate tasa, langabezia tasa eta enplegarritasun indizeari dagozkien emaitzei buruz, Errenteria eta Pasaia dira lan merkatuko adierazle txarrenak azaltzen duten udalerriak

- Aurkako joera azaltzen du Oiartzunek, langabezia tasa txikiena, aktibitate tasa hobea eta enplegarritasun maila ona azaltzen duelarik.
- Oarsoaldean, Lanbiden erregistratutako langabetuen kopurua 2014ko azaroan 5.288koa zen; % 48a gizonezkoak eta % 52 emakumezkoak.
- Udalerrri guztietan langabetuen kopuru altuena 2012ko urteari dagokio (gero hobekuntza txiki bat ikusten delarik ia denetan).

Erregistratutako langabetu eskatzaileen kopurua

	Langabezian dauden eskatzaileen kopurua			
	2011	2012	2013	2014*
Donostia	9.806	11.283	11.193	11.090
Errenteria	2.690	3.172	3.181	3.074
Lezo	352	479	437	396
Oiartzun	456	564	502	549
Pasaia	1.105	1.306	1.290	1.269

* 2014ko Azaroa.
Iturria: Lanbide

Enplegarritasun – indizea

Indizea	Udalerria
Oso altua	▪ Oiartzun
Altua	▪ Donostia ▪ Lezo
Baxua	▪ --
Oso baxua	▪ Errenteria ▪ Pasaia

Iturria: Lanbide

Langabezia-tasa 2011

Udalerria	Guztira	Emakumezkoak
Gipuzkoa	48,1	43,8
Donostia	48,6	44,9
Errenteria	47,8	43,1
Lezo	52,6	49,1
Oiartzun	50,1	46,4
Pasaia	46,9	41,6

Iturria: Eustat

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

2.3 Prestakuntza maila

Oarsoaldeko biztanleriaren prestakuntza maila Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik dago

- Gutxienez bigarren mailako ikasketak amaitu dituzten 10 urte baino gehiagoko biztanleak % 56 (Erreterian eta Pasaian) eta % 62 (Oartzunen) artekoak dira. Orokorrean, Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik (2013an, % 62,3) daude.
- Horrez gain, unibertsitateko ikasketak dituztenen ehunekoa ere txikiagoa da: % 21koa Oartzunen, % 15 Lezon eta Pasaian eta % 14 Erreterian (% 23koa Gipuzkoan).
- Bilakaera oso positiboa izan da azken urteotan, gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dutenen portzentajea asko igo da 2001-2013 epean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 10 urteko eta gehiagoko biztanleria lurralde eremuen eta irakaskuntza mailaren arabera. . 2001/2013						
Udalerría	Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dutenak		Gutxienez lanbide ikasketak gainditu dutenak		Gutxienez unibertsitateko ikasketak gainditu dutenak	
	2001	2013	2001	2013	2001	2013
Gipuzkoa	41,0	62,3	16,4	17,9	13,8	23,1
Donostia	49,5	71,2	14,2	14,4	21,5	33,3
Erretería	35,5	56,1	18,4	20,1	8,5	14,5
Lezo	37,9	59,3	19,2	21,7	8,6	15,2
Oartzun	39,2	62,0	16,8	18,1	11,4	21,4
Pasaia	33,3	56,2	15,5	18,6	7,7	15,5

Iturria: Udalplan.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA


2.4 Errenta eta prestazio sozialak

Errenta mailari dagokionez, Pasaia, Errenteria eta Lezok Gipuzkoako udalerrien azken postuetan daude

- Oarsoaldeako lau udalerriek Gipuzkoaren batz bestekoaren azpitik daude errenta pertsonal erabilgarriari dagokionez.
- Pasaia azken-aurreko postuan kokatzen da (87 udalerrietatik) errenta pertsonalaren sailkapenari dagokionez, Errenteria postu bat aurretik kokatzen delarik. Lezo, zortzigarren lekuan jartzen da azkenengotik hasita eta Oiartzun, berriz, 34. postua hartzen du, beti atzetik hasita.
- Diru-sarreraren berme-errentaren onuradunen kopurua asko hazi da krisi-garaian, batez ere esanguratsua Pasaia kasuan; hemen mila biztanleko 35ak jaso du diru laguntza hori 2013an (milako 20ak Gipuzkoako batez bestekoa). Baita ere Gizarte Larrialdiko Laguntzak jaso dituzten bizikidetz-unitateen bikoizten dira Pasaian Gipuzkoarekin alderatuz (milako 18 eta milako 9).

Errenta Pertsonal erabilgarria 2011		
	(€)	Indizea (100=Gipuzkoa)
Gipuzkoa	17.384	100
Donostia	19.168	110
Errenteria	14.916	86
Lezo	15.449	89
Oiartzun	16.866	97
Pasaia	14.291	82

Iturria: EUSTAT



Iturria: EUSTAT



3.

EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERA

- 3.1. Laburpen-elementuak
- 3.2. Sektoreen araberako egitura
- 3.3. Dinamismo ekonomikoa
- 3.4. Industria-egituraren neurria eta enpresa nagusiak
- 3.5. Jarduera ekonomikoetarako lurra

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

3.1 EKONOMIA ETA ENPRESA JARDUERA: Laburpen-elementuak

- Hirugarren sektoreko jarduera da nagusi Oarsoaldeko udalerrri guztietan eta eraikuntza-sektoreak Gipuzkoan baino eragin handiagoa du.
- Merkataritzak (merkatal gune handiak) eta garraioak presentzia handia dute. Biak lurzoru azalera zabalak eskatzen duten jarduerak direlarik.
- Eskualdeko udalerrri guztietan, enplegu industrialaren garrantziak jaitiera handia jasan du azkeneko hamarkadan, baina joera bera ikusi dugu Gipuzkoa osoan.
- Badian azken hamarkadan izandako hazkunde ekonomikoa Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa izan da (ez, ordea, BPGari dagokionez), baina alde handiak daude udalerrrien artean.
- Jarduera ekonomikoa atzerakada handia jasan du krisia dela eta. Horrek eragina izan du enpleguan, establezimendu berrien sorrera-tasan eta establezimenduen saldoan. Enpresa enblematikoak itxi dituzte. Dinamismo-gabezia bereziki handia da Pasaian.
- Industria-egituraren neurria Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da. I+G arloko eragin gutxiko sektore helduetako enpresa azpi-kontratatistak dira nagusi. Ez dago klusterrik eta trazio-enpresa kateen presentzia txikia da.
- Pasaian eta Errenterian dauden lanpostuen kopurua okupatua dagoen biztanleriarena baino askoz txikiagoa da. Oartzun eta Lezok, berriz, aurkako egoera azaltzen dute; azken hauetan kokatzen diren industri poligono garrantzitsuak esplikatzen dute emaitza hau, inguruko udalerrietatik erakartzen baitute langile asko.
- Oartzunek ditu jarduera ekonomikorako lurzoru zabalenak. Desokupazio maila handia dago bai kontsolidatutako lurzoruetan eta pabiloi industrialetan (hutsik edo merkatuan daudenak). Badian eta ingurunean jarduera industrialak garatzeko lurzorua barreiatuta daude. Saturatutako industrialdeak (eta, kasu askotan, modernizatu beharrekoak) eta azpi-okupatuta dauden beste batzuk daude.
- Portuko jarduerak atzerakada handia jasan du eta sortzen duen enplegua, pixkanaka, eskualdetik banandu da.
- Badiako eta inguruneke eremuak turismo-ostatuaren plazen defizit argia du eta merkataritzako hornikuntzari dagokionez ere Gipuzkoaren batez bestekoarekin alderatuta egoera okerragoan dago, bereziki ahula denda txikiei dagokiona.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

3.2 Sektoreen arabera egitura


Hirugarren sektoreko jardura da nagusi Oarsoaldeko udalari guztietan eta eraikuntza-sektoreak Gipuzkoan baino eragin handiagoa du.

- Hirugarren sektoreko jardura da nagusi Oarsoaldean. 2013an, establezimenduen eta enpleguaren % 70 inguru sektore horietakoa izan zen.

Eskualdeko udalari guztietan, enplegu industrialaren eraginak jaitiera handia jasan du, eta joera berea ikusi dugu Gipuzkoa osoan.


- 2001. urtean, industria arloko enplegua % 22 (Pasaia) eta % 26 (Errearteria) artekoa zen. Handik hamar urtera, aldiz, ehuneko horiek % 13 eta % 18 artekoak dira. Industria txikiaren jardura ekonomiko tradizionalak bere tokia utzi die hirugarren sektoreko jardueri: zerbitzuei eta merkataritzari.

Establezimenduen banaketa jardura-sektorearen arabera. 2013



Iturria: Udalmap.

Industria-sektorean lan egiten duten 16 urte eta gehiagoko biztanleak (%)



Iturria: Eustat.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

3.2 Sektoreen araberako egitura

Merkataritzak (merkatal gune handiak) eta garraioak presentzia handia dute.

- Aldiz, honako sektore hauen presentzia mugatua ikusi dugu: finantzak, higiezinak, eta jarduera profesionalak eta osagarriak. Batez ere, hiriburutik gertu egoteak eragin du hori.

Pasaian eta Erreterian lana egiten dutenen kopurua, okupatua dagoen biztanleria baino askoz txikiagoa da (lanari lotutako mugikortasuna); beste udalerrietan aurkakoa gertatzen da

- 2010ean Oiartzunen 7.227 pertsonak egiten zuten lana baina udalerri honek okupatuta zuen biztanleria 4.609koa bakarrik zen. Lezok (nahiz eta ez egon eskuragarri bere datua) antzeko egoera du. Bi udalerri hauek dituzten industri poligono garrantzitsuak, kanpotik jendea lanera erakartzen du esplikatzeko du.

Establezimendu kopuruaren banaketa jarduera esparruaren arabera 2013

	Donostia	Erreteria	Lezo	Oiartzun	Pasaia	Oarso-aldea	Gipuzkoa
Establezimenduak	19.128	2.467	597	1.319	1.021	5.404	61.972
Lan egiten duten pertsonak	88.150	8.038	2.818	7.227	3.254	21.337	283.940
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	0,6	1,2	3,7	6,2	3,0	3,0	4,5
Industria, energia eta saneamendua	3,2	6,3	18,6	11,2	3,6	8,4	8,1
Eraikuntza	10,0	21,1	21,6	16,1	17,3	19,2	13,4
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	34,1	42,1	36,2	39,7	45,7	41,5	37,0
Informazioa eta komunikazioak	2,7	0,9	0,2	1,8	1,2	1,1	1,6
Finantza-jarduerak eta aseguruak	3,4	2,2	1,3	1,3	2,4	1,9	2,6
Higiezin jarduerak	2,8	1,2	1,2	1,7	0,7	1,2	1,9
Jarduera profesionalak eta osagarriak	24,0	9,4	8,0	13,3	12,2	10,7	14,9
Admini. pub., hezkuntza eta osasuna	11,3	7,1	4,7	4,0	4,8	5,7	8,7
Jarduera artistikoak eta beste zerbitzu batzuk	7,8	8,6	4,5	4,7	8,9	7,2	7,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat

Udalerrian okupatua dagoen biztanleria eta udalerrian lana egiten duten pertsonen kopurua

Udalerria	Biztanleria okupatua Udalerrian	Udalerrian lana egiten duten pertsonen kopurua
Donostia	79.178	88.150
Erreteria	17.006	8.038
Lezo	2.869	
Oiartzun	4.609	7.227
Pasaia	6.730	3.254

* Informazio hau 10.000 gorako biztanle dituzten udalerrietzat bakarrik dago eskuragarri.
Iturria: Eustat

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA


3.3 Dinamismo ekonomikoa

Establezimendu berrien sorrera-tasak ere agerian utzi du dinamismoa gutxitu dela eta bereziki esanguratsua da Pasaian


- Mila biztanleko establezimendu berrien sorrera-tasa ia beti egon da Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik Erreteriarren eta Pasaiaren kasuetan. Oiartzunek eta Lezok, aldiz, salbuespenak salbuespen, azken hamarkadan balio handiagoak izan dituzte.
- Establezimenduen saldo garbiak, era berean, krisi ekonomikoa izan duen inpaktua erakusten du. Gainera, hedapen-urteetan ere Pasaiak nolabaiteko geldialdia jasan zuela berresten du; izan ere, adierazle horrek, alderaketa eginez gero, oso balio txikiak biltzen ditu.

Krisiaren eraginez, jarduera ekonomikoa eta enpleguak atzerakada handia jasan dute


- 2013an Oarsoaldean zenbatutako jarduera ekonomikoko 5.404 establezimenduek 21.337 laguni ematen zioten lana. Bi kopuru horiek atzerakada handia erakusten dute 2008ko datuekin alderatuz gero. Bereziki esanguratsua da Pasaiako (% -28) eta Erreteriarriko (% -23) establezimendu kopuruaren jaitsiera Gipuzkoa osoko datuekin alderatzen badugu (% -14). Lanean ari den biztanle kopurua % 3,5 gutxitu da 2006. urtearekin alderatuta (% -0,4 Gipuzkoan).



Iturria: Udalmap.



Iturria: Udalmap.




Iturria: Udalmap.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

3.4 Industria-egituraren neurria eta enpresa nagusiak

Industria-egituraren neurria Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da

- Industria-egitura motari dagokionez, establezimendu industrialen batez besteko neurria Gipuzkoako batez bestekoarena baino txikiagoa da: Pasaia batez bestekoa 5 enplegukoa da, eta 11koa Lezokoa. Gipuzkoakoa, aldiz, 14 enplegu baino gehiagokoa zen 2013an.
- Dena den, mikroenpresez gain, industria-enpresa handiak ere badaude. Batez ere, sektore hauek dira: garraioa, banaketa, plastikoa, papera eta makinak



Iturria: Udalmap.

Eskualdeko enpresa nagusiak (100 enplegu eta gehiago)

Enpresa	Udalerria	Langile kopurua
PAPRESA, S.A.	Errenteria	255
ELSTER IBERCONTA, S.A.	Errenteria	135
BEISSIER, S.A.	Errenteria	100
SALVA INDUSTRIAL, S.A.	Lezo	160
AMCOR FLEXIBLES ESPAÑA, S.L.U.	Lezo	137
INTERAL, S.A.	Lezo	125
SAN JOSE LOPEZ, S.A.	Oiartzun	350
ABB AUTOMATION PRODUCTS, S.A.	Oiartzun	270
INDUSTRIAS TAJO S.COOP.	Oiartzun	150
TRANSPORTES INSAUSTI, S.A.	Oiartzun	120
DSV ROAD SPAIN, S.A.U.	Oiartzun	100
SALTO SYSTEMS, S.L.	Oiartzun	100
SOCIEDAD ESTATAL DE ESTIBA Y DESESTIBA	Pasaia	147
AUTORIDAD PORTUARIA DE PASAIA	Pasaia	146

Iturria: Oarsoaldea Garapen Agentzia.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

3.5 Jarduera ekonomikoetarako lurra

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintzan, gaur egun, ez da defizitik detektatzen.

- Hutsa dagoen lurzoru azaltzen da eta dagoeneko eraikita dauden jarduerarik gabeko pabilioiak ere. Oiartzun da hutsik dagoen lurzoru azalera handiena duen udalerria.
- Jarduera ekonomikoetarako kontsolidatutako lurzorian hutsik dagoen azalera ere altua da, Lintzirin, Ugaldetxo eta Nabalaldean adibididez.
- Saturatutako industrialdeak (eta, kasu askotan, modernizatu beharrekoak) zein okupazio tasa oso baxua duten industrialdeak ere nabarmentzen dira.


Industria-jardueretarako lurzoru libre duteen industrialde nagusiak (pabilioiak eta lursailak)		
		Hutsa dagoen azalera (m ²)
Pasaia	Nabalaldea	6.533
Lezo	Sagasti	2.743
Errenteria	Txirrita-Maleo	5.924
	Masti-Lodi	0
	Egiburu	
Oiartzun***	Ugaldetxo*	5.803
	Arragua	3.180
	Lintzirin**	36.500
	Lanbarren***	76.200

* Eraikitako pabiloian 15.714 m² ditu, gaur jarduera ekonomikorik gabe,

** Eraikitako pabiloian 11.611 m² ditu jarduera ekonomikorik gabe.

*** Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean beste 83.477 m² ezartzen ditu (Lanbarrengaina)

Iturria: Sprilur eta Oiartzungo HAPO.



* Portuko lurra zeharo beteta dagoela kontsideratzen da.

Fuente: Udalplan 2014



4.

LURZORUA, ETXEBIZITZA ETA AZPIEGITURAK

- 4.1. Laburpen-elementuak
- 4.2. Lurzoruaren erabilerak
- 4.3. Hirigintzako dentsitatea
- 4.4. Etxebizitza nagusien parkea
- 4.5. Portuko jarduerak

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.1 LURZORUA, ETXEBIZITZA ETA AZPIEGITURAK: Laburpen-elementuak

- Zailtasun topografikoak direla eta, hiri-eremuak lurzoru egokiko baliabide gutxitan pilatuta daude.
- Errepideen sarea da garraio-azpiegituretara bideratutako lurzoru gehien bereganatzen duena trenbidera eta portura bideratutako azalerarekin alderatuta. Oartzun da haren bi heren pilatzen dituen.
- Badiara eta estuariora begira dagoen hiri-aglomerazioa handia da azalerei zein, batez ere, biltzen duen etxebizitza kopuruari dagokienez.
- Pasaiak eta Lezok etxebizitzaren erosotasun-indize baxua eta eraikitako parkea berritzeko lanen beharretan oso indize altua dituzte. Oartzunek, aldiz, adierazle hobeak ditu (azalera, antzinasuna, erosotasuna).
- Pasaiako Portua eskualdeko azpiegitura garrantzitsua bat da, 77 ha-tan garatzen den azpiegitura da, eta 5 kilometro baino gehiago biltzen ditu sarrerako kaietan eta badian.
- 3-4 milioi tona inguruko zirkulazioa. Batez ere, merkantzia orokorra eta solteko salgai solidoak inportatzeaz arduratzen da.
- Portuko trafikoari dagokionez, Gipuzkoa da arretagune nagusia, eta ondoren, Zaragoza, Madril eta Araba.
- Fakturazioa eta enplegua portuko enpresetan pilatuta dago. Portu Agintaritzak espazioak eta zerbitzuak hornitzeko eta kudeatzeko lana betetzen du.
- Pasaiak 2025 etorkizuneko proiektuan, Pasaiako Portua Gipuzkoako enpresen zerbitzura dagoen hiri-portu bezala definitzen da estrategikoki.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.2 Lurzoruaren erabilerak

Zailtasun topografikoak direla eta, hiri-eremuak lurzoru egokiko baliabide gutxitan pilatuta daude.

- A-8 autobidearen iparraldeko gunea batez ere artifizializatuta dagoen konglomeratua bezala pertzibitzen da, aurretiazko egituraketarik gabe garatutakoa. Baina Oarsoaldeko lurzoruaren % 10ek bakarrik du honako hauetarako kalifikazioa: bizitokia, jarduera ekonomikoa edo azpiegiturak. Badiaren inguruak (lehortutako lurak eta isuri egiten duten mendi-hegalak daude) eta Oiartzun ibaiaren ardatzak (beheko bidearen dituen ibaiadarrekin: Lintzirin, Pekin, Sarobe, Zubitxo, Txingurri, Molinao) pilatzen dituzte betetako azalerak.

Azalera artifizializatuak Oarsoaldeko udalerriak								
	Bizitokia (ha)	Jarduera ekonomikoa (ha)	Ekipamenduak (ha)	Garraio azpiegiturak (ha)	Oinarizko azpiegiturak (ha)	GUZTIRA (ha) (a)	Udalerriko azalera (ha) (b)	% (a)/(b)*100
Errenteria	279	102	26	41	8	456	3.195	14,3
Lezo	31	73	5	36	0	147	847	17,3
Oiartzun	94	159	34	100	7	395	5.949	6,73
Pasaia	52	28	34	30	1	145	1.059	13,7
GUZTIRA	457	362	100	207	17	1.142	11.050	10,3

Iturria: Udalplan

Errepideen sarea da garraio-azpiegituretara bideratutako lurzoru gehien bereganatzen duena trenbidera eta portura bideratutako azalerarekin alderatuta. Oiartzun da haren bi heren pilatzen dituen.

- Garraio-azpiegituretara bideratutako 207 ha-ko azaleratik, zati handiena errepideen sareari dagokio (156 ha, eta horietatik 97 ha Oiartzunen daude), trenbideak betetako azalera (20 ha) eta portuarena (beste 30 ha, eta horietatik 20 Pasaian) gaindituta. Aurretik jarduera logistikoko portuko jardueran gehitutakoen artean daude (beste 39 ha). Bide-sarearen dentsitatea kokapen geografikoaren ondorioa da; izan ere, nazioarteko zirkulazio handiaren korridoreko pasabidea da. Gainera, Donostiako ingurunearen eta Bidasoa Beherearen, eta bertako kokalekuen arteko aglomerazioen komunikazio-beharrak gehitu behar dizkiogu horri. Gorabehera hori ere erabakigarria da sektore logistikoko enpresek jarduera ekonomikoko lurzoru okupatzeari dagokionez.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.3 Hirigintzako dentsitatea


Badiara eta estuariora begira dagoen hiri-aglomerazioa handia da azalerari zein, batez ere, biltzen duen etxebizitza kopuruari dagokienez.

- Batez ere bizitoki-lurra aztertuta eta ikerketaren baitan dauden Donostialdeko datuak txertatuta, erabilera horietarako sailkatutako azalera 671 ha-koa dela esan dezakegu. Etxebizitza kopurua (onartutako plangintzetan aurrez ikusitakoak barne) 49.139koa da.
- Etxebizitzen dentsitatea, hiri-kalitatea eta populaketa mota adierazten duena, oso ezberdina da ikerketaren eremuan.
- Oarsoaldeko batez besteko dentsitatea (ha bakoitzeko 75 etxebizitza ingurukoa) bat dator iraunkortasunerako parametro egokiekin (pilaketa ekiditea, lurzoruaren kontsumoa gutxitzea eta ekipamendu eta zerbitzuen kostua bideragarri egitea). Baina batez besteko horrek udalerrri eta auzoen arabera oso egoera heterogeneoa biltzen du.
- Sektoreen araberrako datuei erreparatuta, adierazleek egoera are gehiago larrigotzen dute eta haietako batzuetan pilaketako adibide argiak erakusten dituzte. Oarsoaldeko udalerrietako Udalplaneko datuak erreferentziatzat hartuta (indarrean dagoen plangintzan aurrez ikusitako etxebizitzak biltzen dituzte), eremu batzuetan, ha bakoitzeko etxebizitza kopurua 200ekoa edo 300ekoa dela ikus dezakegu.
- Bistakoa den moduan, ondoko eremuen egoerak eragina izan dezakeen arren (bi aldeetan), batez ere esanguratsua da faktore horrek distortsio-eragin txikiagoa duen dimentsio handiagoko sektoreak aztertzea. Bereziki aipagarria da Errenteriako eta Pasaia sektore jakin batzuetako egoera, baina horrelako kasu bakarra dago Oiartzunen (Errenteriararen alboan dago). Lezun ez dago 150 etxebizitza/ha gainditzen duen eremurik, nahiz eta udalerrri osoko dentsitatea altua den.

Bizitoki-lurreko azalerak eta dentsitatea				
	Superficie (ha)	Oraingo etxebizitza kopurua	Aurrez ikusitako etxebizitza kopurua	Etxebizitza/ha dentsitatea
Errenteria	279,3	17.037	18.981	68,0
Lezo	31,4	2.538	3.266	104,0
Oiartzun	94,00	3.240	4.492	47,8
Pasaia	52,3	7.258	7.425	141,9
OARSOALDEA GUZTIRA	457,0	30.073	34.164	74,8
Altza (hiri-lur kontsolidatua)	99,0		7.892	79,7
Altza (lurzoru urbanizagarria)	67,5		3.210	47,6
Miracruz-Bidebieta	47,0		3.873	82,4
TOTAL ÁMBITO	670,6		49.139	73,3

Iturria: Udalplan 2013

Dentsitatearen sailkapena sektoreen arabera (> 150 etxebizitza/ha). Oarsoaldea




Iturria: Udalplan 2013

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.4 Etxebizitza nagusien parkea

Pasaia eta Lezok etxebizitzaren erosotasun-indize baxua eta eraikitako parkea berritzeko lanen beharretan oso indize altua dituzte. Oartzunek, aldiz, adierazle hobekak ditu (azalera, antzintasuna, erosotasuna).

- Oarsoaldeko familiako etxebizitzaren parkearen desokupazio-indizea txikia da; Errenteriako % 7,8 eta Oartzungo % 12 artekoa da. Pasaia ehuneko % 11koa da, eta Lezokoa % 10ekoa.
- Eusko Jaurlaritzak hiri-berroneratze arloko esku-hartze beharren inguruan egindako ikerketan agerian geratu zen Pasaia eta Lezo kalteberatasun handiko eremuen baitan zeudela.
- Oartzunek askoz ere dentsitate txikiagoa duen, modernoagoa eta erosoagoa den parkea du eta bizitoki eta hirigintza arloko kalitate hobeko habitataren bila ari zen biztanleria erakarri du.



Etxebizitzaren antzintasuna eta erosotasun indizea. 2011

	Batez-besteko antzintasuna (etxebizitza familiarak) (urteak)	Erosotasun indizea (etxebizitza nagusiak) (1-100)
Donostia	45,4	74,1
Errenteria	40,7	70,4
Lezo	35,9	66,9
Oartzun	34,9	72,5
Pasaia	49,3	65,1
Gipuzkoa	40,3	72,3

Iturria: Udalmap

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Diagnóstico de las Necesidades de Intervención en la renovación del parque edificado de la CAPV". 2012

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.5 Portuko jarduerak


77 ha-tan garatzen den azpiegitura da, eta 5 kilometro baino gehiago biltzen ditu sarrerako kaietan eta badian.

- Bertako azpiegitarari dagokionez, Pasaia portuko lurreko zerbitzuaren eremuak 77,44 ha-ko azalera du Pasaia, Errenteria eta Lezoren artean. Haietako eremu batzuk beste enpresa batzuei emakida bidez uzteko modukoak dira eta beste batzuk, aldiz, Pasaia Portu Agintaritzako (PPA) instalazioek, bideek eta eremu komunek betetzen dituzte. 2011ko datuen arabera, beteta dagoen azalera 59,09 ha-koa da; hau da, guztizkoarekiko % 76,3koa. Atxikitako taulan daude banatuta azalera eta okupazioa. Beste 92,02ha flotazio-azalerrari dagozkio eta sarrerako kanalak eta badiak osatzen dute.

Portu-eremuak eta okupazioa			
Eremua	Azalera, guztira (ha)	Okupatutako azalera (ha)	Okupazioaren ehunekoa (%)
Arrantza-eremua	4,20	4,20	100
Erabilera mistoetarako eremu osagarria	17,18	8,02	46,69
Antxoko merkataritza-eremua	39,63	33,46	84,42
Lezoko merkataritza-eremua	5,56	4,13	74,32
Zentral termikoko eremua	3,31	3,22	97,26
Ontziak eraiki eta konpontzeko eremua	7,56	6,06	80,11
Desafektzioa egitea aurrez ikusi duten	0	-	-
GUZTIRA	77,44	59,09	76,30

Iturria: Pasaia portuko zerbitzuaren ordenamendurako plan berezia. 2012ko Iraunkortasunaren Memoriatik hartutakoa. Pasaia Portu Agintaritza.

- Zerbitzu-kaien guztizko luzera 5.353 metrokoa da eta, erabileren arabera, honela banatuta dago: merkataritzako kaiak (3.393 m), arrantzako kaiak (1.166 m) eta beste kai batzuk (794 m)




¹ 2012ko Pasaia Portuko Zerbitzuaren Ordenamendurako Plan Berezian zehaztutako banaketa hori parametro batzuetan aldatu egingo da lehen zentral termikoak betetzen zuen azalerraren eta inguruko azalaren erabilera aldatu egingo delako. Hau dena Plan Berezi berrian zehaztuko dute.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.5 Portuko jarduerak

Urteko 3-4 milioi tona inguruko zirkulazioa. Batez ere, merkantzia orokorra eta solteko salgai solidoak inportatzeaz arduratzen da. Pasaia Portu Agintaritzak dituen perspektiben arabera, 2025ean gehienez 5,9 milioi tonetara iristea aurreikusten da

- Aintzat hartutako trafikoen bilakaerak 6 milioi tona inguruko gehienekoa antzematen du; baita 2004-2008 aldian 5 milioi gainditzen dituzten baliok ere. 1981-1986 aldian, muga hori gainditu zuen kopuru txiki bat izan zen. Azken ekitaldian lortutako baliok 3 eta 4 tona artean kokatzen dira. Pasaia Portu Agintaritzaren aurreikuspena 2025erako gehienez 5,9 milioi tona lortzea da. Erregistratutako zifrek, Estatuko Interes Orokorreko Sareko Portuetan sartutako Portuko 28 agintaritza daudela kontuan hartuta (batzuk portu bat baino gehiagorekin), rankingean 20-21 inguruko postuak okupatzen dituzte.



Fuente: "Plan estratégico del Puerto de Pasaia 2015 – 2025", Pasaia Portu Agintaritza.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.5 Portuko jarduerak

Batez ere, merkantzia orokorra eta solteko salgai solidoak inportatzeaz arduratzen da.

- Salgai orokorren eta solteko solidoen inportatzailea den portua da. 2012ko banaketa erreferentziatzat hartuta, honako hauek izan dira trafiko nagusiak: produktu siderurgikoak (tona guztien % 37,3), ikatza/kokea (% 13,1), txatarra (% 11,2), automobilak (% 9,7), papera eta pasta (% 4,9) eta zerealak / irinak (% 3,1). Zentral termikoaren itxierarekin (erabilera anitzeko terminalak ordezkatzuko du) eta trafiko berriak erakartzeko ekintzekin, 2025. urterako banaketa aldatu egingo dela espero da. Horren ondorioz, kargen dibertsifikazio handiagoa gertatuko da eta hainbat ekitalditan halakorik ikusi ez ondoren, edukiontzien trafikoa hasiko da.

Merkantzia trafikoa 2014		
Tipologia	2014	%
Produktu siderurgikoak	1.380.080	40,0
Txatarra	618.753	17,9
Automobilak	327.899	9,5
Ongarriak	180.413	5,2
Zerealak	153.402	4,4
Pentsuak	138.974	4,0
Papera eta egur-pasta	117.421	3,4
Eraikuntzarako materialak	91.755	2,7
Besteak	443.452	12,8
GUZTIRA	3.452.149	100,0

Iturria: Pasaiako Portu Agintzaritza

2025erako aurrez ikusitako gehieneko trafikoa	
Tipologia	Tona
Produktu siderurgiko luzeak	1.000.000
Txatarra	1.000.000
Potasa	850.000
Produktu siderurgiko luak	750.000
Edukiontzia	700.000
Automobilak	460.000
Gatza	300.000
Papera eta pasta	300.000
Ongarriak	200.000
Zerealak	200.000
Ikatza eta kokea	100.000
Arrantza	25.000
GUZTIRA	5.885.000


Iturria: Pasaiako Portu Agintzaritza

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.5 Portuko jarduerak

Gipuzkoa, hura baita arretagune nagusia, eta ondoren, Zaragoza, Madril eta Araba.

- Inportazioko hinterland-a oso handia da eta batez ere Gipuzkoan kokatuta dago. Ondoren, Zaragoza, Madril eta Araba daude zerrendetan. Inportazioko foreland-a oso hedatuta dago eta Herbehereak eta Suedia dira jatorri nagusiak. Esportazioei dagokienez, Erresuma Batua da hartzaile nagusia, eta ondoren datoz Belgika eta Turkia.



Fuente: Pasaia Portu Agintzaritza

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

4.5 Portuko Jarduerak

Fakturazioa eta enplegua portuko enpresetan pilotuta dago. Portu Agintaritzak espazioak eta zerbitzuak hornitzeko eta kudeatzeko lana betetzen du.

- Datu ekonomikoei dagokienez, Portu Agintaritzaren diru-sarrerak 13,8 milioi eurokoak izan ziren 2012an eta aurreko ekitaldietako antzeko zifrak mantendu zituen. Diru-sarreretan tasetatik eta zerbitzuetatik eratorritakoak nagusi diren arren, enpresa operatzaileei portuko espazioen emakidak direla eta kobratutakoek ere garrantzia areagotu dute (118 dira guztira) eta guztizkoaren herena dira gutxi gorabehera. Portu Agintaritzak, batez ere, lurraren jabe gisa funtzionatzen du, multzoa kudeatzen du, jarduera komunetan inbertsioak egiten ditu eta enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkie (horiek dira jarduera, fakturazioa eta enplegua pilotzen dutenak).
- Portu Agintaritzako enplegua 146 lagunekoa zen 2012an eta haietako 69 ziren bulegoetako langileak, 43 polizia-zerbitzukoak, eta 22 mantentze-lanetakoak. Portu osoko enpleguari dagokionez, GIPORTen (Pasaiako portuko erabiltzaileen elkarte) arabera, 2.317 lagunekoa zen 2011n. Enplegu hori (guztizko lanbideak zein partekatutak biltzen ditu), batez ere, honako hauetan pilotuta dago: arrantza (590), errepide bidezko garraioa (563) eta zerbitzu-enpresak (361).

Enplegu zuzena portuko jardueran. 2010. urtea	
Taldea	Enplegua
Instituzioak	136
Kontsignatarioak eta zamaketariak	215
Errepide bidezko garraioa	563
Tren-operadoreak	72
Ontzigitzako industriak	135
Industria-enpresak	192
Zerbitzu-enpresak	361
Beste erakunde ofizial batzuk	54
Pesca	590
GUZTIRA	2.317

Iturria: Giport. Pasaiako portuarekin zuzenean eta zeharka lotutako enpresei eta enpleguari buruzko ikerketa

Pasaiako Portua 2015-2025.

- Azpiegituretako Gida Planaren izapidetzea bertan behera geratu izanak egungo kaiaren etorkizunerako planteamendu berria ekarri du. Horrekin lotuta, 2014an, eragile ugariaren parte-hartzea baliatuta, PPAk "Pasaiako portuaren egitura-azterketa prospektiboa" izeneko lana prestatu du, eta orientazio estrategikoen dokumentua eragin du horrek. Ondorioak 2015-2025 Portu Agintaritzaren Plan Estrategikoa eguneratzeko erabili dira eta kontuan hartuko dira Pasaiako Portuko Zerbitzu Eremuaren eta Portuko Erabileren eta Espazioen Mugaketako Plan Bereziaren berrikusketan. Horiek zehaztuko dute portuaren etorkizuna, 2025. urtea oinarritzat hartuta.
- 2015-2025 Pasaiako Portuaren Plan Estrategikoaren orientazio estrategikoak honako hauetara daude bideratuta:
 1. Ingurumen kudeaketa ezin hobea duen hiri-portua.
 2. Europar Garraio Sarean integratzen den logistika-nodoa.
 3. Eremuko ekonomia bultzatzeko tresna.



5.

KOMUNIKAZIOAK, GARRAIOA ETA MUGIGARRITASUNA

5.1. Laburpen-elementuak

5.2. Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

5.1 KOMUNIKAZIOAK, GARRAIOA ETA MUGIGARRITASUNA: Laburpen-elementuak

- Garraio publiko eta modalitate arteko garraio-hornidura zabala
- Oinezkoen eta txirindularien mugikortasuna aurrerantz
- Goratutako aparkalekuen gabezia, beste jardueretarako lurzorwaren erabilera mugatzen duen erabileran
- Zirkulazio handia, kokapen geografikoak eta jarduera ekonomikoari lotutako finkatzeak eraginda, arazoak eragiten dituzten zati batzuekin eta Lezon eta Oartzunen istripu-tasa handiekin

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

5.2 Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna

Garraio publiko eta modalitate arteko garraio-hornidura zabala

- Hiri-inguruetan, garraio publikoaren zerbitzua, oro har, oso ona da lineei zein maiztasunei dagokienez. Izan ere, horixe da azterketa eremuko indarguneetako bat.
- Bi tren-eskaintza daude (Euskotren eta Renfe) eta, horiei esker, erdiko ardatz osoari zerbitzua eskaintzen diote geltokietatik urrunago dauden Oiartzungo, Pasai Donibaneko eta Pasai San Pedroko zati handienari kenduta. Maiztasun handiak eskaintzen dituzte. Euskotrenen Herrera-Altza (obrak egiten ari dira) tarte eraiki ondoren lortuko diren hobekuntzei esker, sarbideak jarriko dituzte Larratxotik eta Arriberritik. Horrek nabarmen handituko du Altzako biztanleentzako erabilera-ahalmena. Oiartzunen, bestalde, bertako autobus-linearekin (Xorrola) intermodalitatea garatu dute. Trenaren erabilera bultzatzea, eta lineak eta intermodalitatea ugaritzea geltokiak eta irisgarritasuna hobetuta susta daitezke. Izan ere, irisgarritasunaren gaia da Herrerako geltokiak biltzen dituen eremuek maiz aldarrikatu izan duten alderdia, biztanlerik gabeko eremu degradatuetatik joan-etorriak egitea eskatzen baitute.
- Errepide bidezko garraio publikoak ere oso eskaintza lehiakorra du lineen hedapenari eta bidalketen kopuruari dagokienez (batez ere, Donostiarekin lotutako joan-etorrietan). lineak ugaritu dituzte eta ez dago gabezia esanguratsurik, industrialdeetarako sarbideen kasuan izan ezik. Industrialdeetarako zerbitzu espezifikoak ezari zituzten arren, erabilerak ez du arrakastarik izan, eta kendu egin zituzten.
- Pasai Donibane Pasai San Pedrokekin lotzen duten txalupa motordunen zerbitzua dago eta erabilera handia izaten du; izan ere, Pasai Donibaneko biztanleentzako Donostiarako sarbide laburragoa eskaintzeaz gain, bisitari eta turistentzako zerbitzua eskaintzen du. Aurretik, Pasai Donibanetik Buenavistara eta Antxora joateko lineak ere bazeuden, baina erabilera gutxitu eta portu-esparrua itxi izanaren ondorioz, ezin izan zuten aurrera jarraitu.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak abian jarritako tarifa-sistema bateratuari esker, aipatutako garraibide guztietan euskarri bakarrarekin (Mugi) eta beherapen mailakatuekin bidaiatzeko aukera dago. Salbuespenak Renferen zerbitzuak eta txalupa motordunarenak dira, oraindik ez baitira sisteman sartu. Erabilera orokorrari esker, garraio kolektiboaren erabilera bultzatu egin da.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

5.2 Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna

Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna aurrerantz

- Oinezkoen eta txirrindularien mugigarritasunari dagokionez, igoera ere nabarmena izan da. Erreterria eta Oiartzun (Arditurriko bidegorriarekin) aitzindariak izan ziren bideak abian jartzen eta, horiei esker, paseatzeko guneen eskariari erantzuna eman zioten. Ondoren, garapena gorabehera gutxiagoko topografia duten hiri-eremuetara zabaldu izan dute erabilera egunerokoagoa eta komunikabide gisa funtziona dezakeena emateko asmoz. Erreterriatik (Oiartzunera luzatutakoa) Herrerara eta Intxaurrondora egindako trazatua nabarmendu behar dugu. Horri esker, Donostiarekin lotzen da eta ondoz ondoko tartek ireki dituzte beste eremu batzuetan. Gabezia nagusiak Pasai Donibanerekiko konexioetan (Erreterriatik abiatzen den bidegorria Lezon amaitzen da) eta Trintxerpe-San Pedrokekiko loturretan daude. Trazatuekin lotutako mugetako zailtasun nagusiak azpiegiturek, malda handiek, espaloi txikiak eta abarrek eragin dituzte.

Aparkalekuen gabezia handiak; gainera, erabilera horrek beste jarduera batzuetarako lurzorua erabilera mugatzen du

- Garraio kolektiborako baliabideak ugari diren arren, automobil partikularraren erabilera handia da eta horixe da lanerako garraibide nagusia. Bereziki aipatu beharrekoa da turismo-ibilgailuen kopurua 29.682koa dela Oarsoaldeko udalerrietan. Horien artean, erdiak Erreterrian daude, baina proportzioari dagokionez, Oiartzungo parkea handiagoa da; izan ere, ibilgailu bakoitzeko bi biztanlekoa ere ez da. Bistakoa denez, helmugakokiekiko kokapenak eta habitataren pilaketak eragina dute horretan.
- Ibilgailuen parke handiak eta biztanleriaren pilaketak aparkaleku-arazoak sortzen laguntzen dute eta arazo horiek handiak direla esan daiteke. Oarsoaldeko Mugigarritasun Iraunkorreko Planak urte dezente duen arren (Oarsoaldea SAK egin zuen), egoera ez da nabarmen aldatu. Hori dela eta, eskualdeko aparkalekuekin lotuta, "arazoa larria" dela esan daiteke. Ibilgailuen % 60 kaleetan aparkatzen dituzte eta horrek beste erabilera batzuetarako lurzoru publikoaren erabilera mugatzen du. 2005ean, defizit teorikoa 10.000 plaza baino gehiagokoa zela kalkulatu zuten, araututako plazak zein arautu gabeak albo batera utzita. Horietatik ia erdia Pasaian dago. Jarduerarik gabeko orubeak erabiltzeak, itxuraz, gabezia hori arindu egin du. Gainera, plazak hornitzeko hainbat ekimen jarri dute abian.

Ibilgailuen parkea. Turismoak. Oarsoaldea		
Udalerria	Turismo-ibilgailu kopurua	Turismo-ibilgailu/Biz.
Erreterria	15.525	0,40
Lezo	2.673	0,44
Oiartzun	5.483	0,55
Pasaia	5.850	0,37
Oarsoaldea	29.531	0,42


Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia. 2013ko datuak.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA


5.2 Komunikazioak, garraioa eta mugigarritasuna

Zirkulazio handia kokapen geografikoa eta jardura ekonomikoarekin lotutako kokalekuak direla eta, tarte gatazkatsuekin

- Orasoaldean bizi direnen turismoak eta lan- eta erosketa-arrazoiak direla eta eskualdera joaten diren kanpoko pertsonenak (bi kasuetan, batez ere esanguratsua dira Oiartzungoak bertako industrialdeak eta merkataritza guneak direla eta), eskualdeen arteko eta mugaz gaindiko joan-etorriak eta aipatutako eremu guztietako jardura ekonomikoekin lotutakoak bateratzen baditugu, oso zifra handiak aterako zaizkigu. Hori dela eta, eremu hori ibilgailuen mugimendu handikoa eta bide-sare trinkokoa dela esan dezakegu.
- Bide jakin batzuetako zirkulazioak nabarmendu behar dira: GI-636 errepidekoak (garai bateko N-1 errepidea), esate baterako. "Kaputxinoak" eremuan, eguneroko batez besteko intentsitatea 59.854 ibilgailukoa izaten da. Lintzirinen, 35.530 ibilgailukoa (%87 autoak dira eta %10 ibilgailu astunak).
- Errepide horri lotuta, bigarren mailako bi bideak, GI-2132 eta GI-2638k (eta, batez ere, lehenengoak), zirkulazio handiak dituzte eta biak hiri-eremuak zeharkatzen dituzte. GI-2132 errepideak "Lartzabal-Alcampo" (9136 zenbakia) izeneko geltokia du eta bertako eguneroko batez besteko intentsitatea 21.949 ibilgailua da. Tarte horretan, merkataritza gunera, Ugaldetxo industrialdera (2.870 lanpostu), Arangurenara eta Egiburuberrira (Errenteria), Oiartzungo AP-8 errepideko sarrera eta irteeretara, Oiartzungo hiriguneetara eta Errenteriako ekialdeko sektorerara bideratzen diren zirkulazioak elkartzen dira. Auto-ilarak handiak izaten dira tarte horretan eta bereziki larriagotzen dira lanetik irteteko edo lanera sartzeko arduategietan eta larunbatetan (merkataritza guneak). Azken kasu horretako auto-ilarak Errenteriako bariantean ikus ditzakegu. Errepide-tarte horrek ere mugimendu handiak izaten ditu Lintziren eremuko merkataritza guneetara sartu ahal izateko. Hori guztiari, gainera, ibilgailu astunen zirkulazioa gehitu behar diogu. Izan ere, kamioietarako erregaien salmenta-zentroak eta zona logistikoak daude bertan.




Erregistratutako istripuetan harrapatutako oinezkoak (10.000 bizt.)



Iturria: Udalmap. 2013

Erregistratutako zirkulazioko istripuak (biztanleen %o)



Iturria: Udalmap. 2013



6.

OSASUNA ETA INGURUMEN KALITATEA

- 6.1. Laburpen-elementuak
- 6.2. Badiako uren kalitatea
- 6.3. Airearen kalitatea
- 6.4. Zarata
- 6.5. Osasuna

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

6.1 OSASUNA ETA INGURUMEN KALITATEA: Laburpen-elementuak

- Nahiz eta hobekuntzak nabarmendu, Badiaren urek ez dute lortzen egoera ekologiko ona.
- Aurrera pausuak eman arren, isurien inpaktu negatiboak eta sedimentuen kutsadurak jarraitzen dute.
- Airearen kutsaduraren gertaera puntualak antzematen dira etengabe, baita kalitatearekin lotutako aldian behingo molestiak ere, batez ere, Kaputxinoetan eta Lezon
- Zaratarekin lotutako egoera hobetu da, baina molestia handiekin jarraitzen dute Lezon, Kaputxinoetan, Trintxerpen eta Antxon
- Osasun-adierazle okerragoak eta bizitza-ohitura ez hain osasungarriak.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

6.2 Badiako uren kalitatea

Nahiz eta hobekuntzak nabarmendu, Badiaren urek ez dute lortzen egoera ekologiko ona.

- Azken datuen arabera, (Azti-Tecnalia Ur-Agentziarako) urek ez dute egoera ekologiko ona lortu; hala eta guztiz ere, egoera kimiko onean mantentzen dira. Orotara, "okerragoa, baina ona" den egoera esango genuke.
- Lezo eremuko geltokiak muturreko kutsadura zuen 1997ra arte. Orain hobetu egin da, Oiartzun ibaiaren arroaren hondakin-urak desbideratu direlako eta 2010etik, egoera ekologiko onargarria lortu du, uren kutsadurak jarraitzen duen arren. Herrerako kaian egoera neurtzen duen estazioak egoera ekologiko txarra du, batez ere, Txingurri erreka isuriek eraginda. Ibilbidearen zati handi batean lur azpian igarotzen da eta Hospitalalillo kaian itsasoratzen da. San Pedroko estazioak egoera ekologiko moderatua du.

Aurrera pausuk eman arren, isurien inpaktu negatiboak eta sedimentuen kutsadurak jarraitzen dute.

- Portu "konfinatu" izaeraren eraginez, Pasaiako estuarioa euskal kostaldeko kutsatuenetako bat da. Horrek, berritzea tasa murriztuarekin batera, uren kalitatean eragiten du (Azti-Tecnalia). Hala eta guztiz ere, ibaiak egoera ekologiko ona du. Bestalde, gehitu behar da arroaren isuriek eragiten jarraitzen dutela, hauek esate baterako: dagoeneko aipatu dugun Txingurri erreka, Pasai Donibaneko antzinako eremukoak, Pekin erreka eta beheko ibilbidean itsasoratzen diren Errenteriako beste batzuk, Lintzirin erreka itsasoratzen diren Lezo eta Oiartzungo erreka, baita diseinuko emaria gainditzen duten unean saneamendu-kolektoreen arintzeak ere. Arintze horiek zuzenean badiara, itsasora edo Oiartzun ibaiaren azken zatira egiten dira.

¹ Ur Agentzia. Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizioko eta kostako uren jarraipen ekologikoko sarea". Azti-Tecnalia, 2014

2008-2013 aldiaren bilakaera. Oiartzungo ur-masa

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Egoera ekologikoa	Maila moderatuta mantentze da					
Egoera kimikoa	ona	ez du egoera ona lortzen			ona	
Egoera	Ona baino txarragoa					




Figura 329 Calificación del Estado Ecológico, estado químico y global de las estaciones en la masa de agua del Oiartzun (y estado ecológico para la masa de agua), en 2013.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

6.3 Airearen kalitatea

Airearen kutsaduraren gertaera puntualak antzematen dira etengabe, baita kalitatearekin lotutako aldiari behingo molestiak ere, batez ere, Kaputxinoetan eta Lezon

- Tradizioz eragin handiagoa izan duten aire-kalitatea kaltetzeko faktoreak hauekin daude lotuta: portuko jarduera, zentral termikoaren igorpenak eta ibilguaren zirkulazioa. Portuko jarduerari dagokionez*, igorpenek izaera zehaztugabea dute (hauts-itxurako materialaren karga eta deskarga eta txatarraren mugimendua) eta fokuek jatorri mugikorra dute (portuko eragiketetan erabilitako makineriaren erabilerarako eta mugimendurako), betiere, biak etendako partikulen jaukipenak direla eta (PM10).
- "Pasaiaiko portuaren ingurunean giroaren afekzioa kontrolatzeko eta zaintzeko plana"ren Talde Teknikoak egindako azken txostenaren arabera, egungo datuen arabera, ez dago aire-kalitatearekin lotutako arazorik, baina zenbait baldintzatan aldiari behingo molestiak sor dakizkieke inguruneke bizilagunei.

2006-2011 aldiari Lezon kokatutako kabinan pm10-en datuen bilakaera						
	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Urteko batez bestekoa (µ/m3)	26	28	24	22	20	19
Urteko batez bestekoa x 1,23	32	34	29	27	25	24
Gainditzeen kopurua. Eguneko muga balioa	19	24	12	7	3	3
Gainditze kop. Eguneko muga-balioa, faktorea aintzat hartuz (*)	46	42	24	16	8	15

(*) Erreferentzia-metodoaren bidez kabina automatikoan erabilitako datuak bihurtzeko faktore zuzentzailea
 2011ko urtarrilaren 8ko 102/2011 Errege Dekretua, osasuna babesteko partikulekin zerikusia duena. Urteko batez bestekoaren 50 µ/m3 y 40 µ/m3-ko eguneko mugako balioaren gehienez 35 gainditze baimentzen dira.
 Iturria: Ingurumen arloko afekzioaren kontrol eta zaintzarako Talde Teknikoa Pasaiaiko portuaren inguruan 2012.

- Eskuragarri dauden datuen arabera, PM10 partikulen batez besteko kontzentrazioak beherantz egin du 2007. urtetik gaur egunera arte. 2008tik erregistratutako datuek araudiaren eskakizunak betetzen dituzte. Portuko solteko salgaien trafikoa gutxitzeak ere eragin du hobekuntzan (Txatarra Tm-ak, 2008an 1.379.155 izatetik, 2011n 369.125 izatera pasatu ziren).
- Adierazleetan hobekuntza izan arren, bizilagunen kexek jarraitzen dute karga jakin batzuk manipulatu eta biltegitratzen direlako, eta egoera meteorologikoaren arabera, batez ere, Kaputxinoak eta Lezo inguruetan, txatarrarekin edo hauts-itxurakoekin (kaolina, garia, ongariak eta abar) jarduten den lekuetan. Zaintza-sarearen mugak (portuak ez du sare propioirik) arduratzen dira hurbileko hiri-ingurua gehienerako daturik ez izateaz eta erabilitako adierazleek (generikoak sare osorako eta eguneko edo urteko balioekin) molestia puntualak isla ez ditzaten, intentsitatea handia izan arren.


* 2012ko Ingurumen Iraunkortasunaren Memoria. Pasaiaiko Portu Agintaritzak

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

6.4 Zarata

Zaratarekin lotutako egoera hobetu da, baina molestia handiekin jarraitzen dute Lezo, Kaputxinoetan, Trintxerpen eta Antxon

- Eskuragarri dauden azken datuak 2002an egindako Labeinen azterketa batetik datoz. Bertan, zarata-foku nagusi gisa identifikatu ziren errepideak (N-1, G1-3340, GI-2638, AP-8), portuko jarduera, trenbidea eta industria-foku puntualak.
- Errepideko zirkulazioak sortutako zaratari dagokionez, egungo egoera hobetu egin da oso kaltetuta zeuden eremuetan zirkulazioan egindako jarduerak direla eta; hauetan esate baterako: Herrerako, Buenavistako eta Pasai Antxoko zeharkaleak, fluxu nagusiak bide alternatiboetatik desbideratuta. Hala eta guztiz ere, nukleo hauetan molestia handiak nabari dira oraindik ere: Lezon (Pasai Donibanerako eta portuko instalazioetarako norabidean nukleoa zeharkatzen duten trafikoeekin, eta industrialdeetara doazenekin), Trintxerpen (ibilgailu astunak portu komertzialerako eta lonjarako norazkoan), eta Antxo erdigunetik Molinaoko industrialderako sarbidearekin zerikusia dutenak. Portuko jarduerak eragindako zaratarekin lotuta egungo egoerari dagokionez, aipatutako azterketaren ondorioak mantentzen dira, nahiz eta jardueraren jaitsierak molestiak gutxitu dituen momentuz.



TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

6.5 Osasuna

Osasun-adierazle okerragoak eta bizitza-ohitura ez hain osasungarriak

Trintxerpe, San Pedro, Herrera eta Bidebieta - La Paz-eko herritarren autoestimua eta osasun-egoera aztertu zuen Pasaia Badia birsortzeko (arrain-lonja berria eta Herrera I/M berrantolatzea) bi esku-hartze izan dituen Osasunean Eragiteko Ebaluazio Txostenaren arabera, komunitate honetan daude heriotza- eta gaixotze-tasa handienak; era berean, ariketa fisikoa egiteko ohitura baxuagoak, tabako-zaletasun handiagoa eta obesitate - tasa handiagoa antzeman zuten.

Ondo zaindutako eremu berdeak osasun fisiko eta mental hobearekin, paseatzeko maila altuekin, garraio aktiboarekin eta pertsonen arteko interakzio handiagoarekin lotzen dira, azken batean, kohesio sozial handiagoarekin.

Bizilagunen artean egindako inkestaren emaitzek honako hau islatzen dute:

- Inkesta egindako pertsonen % 68ren ustez, ez da nahikoa hiri-inguruko sakabanaketa-eremuen hornidura. Bestalde, komunitateko bizitza sozialaren eta ekonomikoaren bateratzaile gisa jardungo duten espazioen falta ere nabarmendu dute.
- % 35 ez da gai bereziki identifikatuta / harro sentitzen den toki bat zehazteko eta Puntetako pasealekuak soilik sortzen du nolabaiteko atxikipena.
- Inkesta egindako pertsonen % 38k esan zuten oztopoak nabari zituela hiri-inguruan ibiltzeko garaian, eta hori oinezkoen bideen hornidura gutxirekin, paseatzeko moduko eremu gutxirekin, zirkulazio gehiegirekin eta aldapa handiarekin lotu zuten.
- Inkesta egindakoen % 80ren ustez, geltokirako oinezkoen bidea zikina eta egoera txarrean dago, eta gainera, ez da segurua.

Evaluación del Impacto en Salud de dos intervenciones de regeneración en la bahía de Pasaia



Biztanleriaren osasun egoera

	Heriotza tasa *	Erikortasun tasa *
Gizonezkoak Pasaia	860,6	1.203,3
Gizonezkoak Gipuzkoa	694,7	995,3
Emakumezkoak Pasaia	354,6	1.019,8
Emakumezkoak Gipuzkoa	353,8	913,7
Guztira Pasaia	567,0	1.086,2
Guztira Gipuzkoa	502,6	940,4

- 100.000 biztanleko tasa.
- Iturria: EAEko Heriotza Erregistroa, 2004-2008 eta CMBD 2005-2009



7.

BERDEGUNEAK ETA NATURAGUNE BABESTUAK

- 7.1. Laburpen-elementuak
- 7.2. Hiriko berdeguneak
- 7.3. Naturagune babestuak

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

7.1 BERDEGUNEAK ETA NATURAGUNE BABESTUAK: Laburpen elementuak

- Hiriko berdeguneen gabezia; bereziki nabarmena Pasaian
- Lurraldearen erdia, Natura 2000 Sarean, Pasaian duten garrantzia nabarmenduta

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

7.2 Hiriko berdeguneak

Hiriko berdeguneen gabezia; bereziki nabarmena Pasaian

- Hiri-lurzoru osoari dagokionez, hiriko parke, lorategi eta berdeguneen azalerei dagokienez (Udalmap-en erabilitako iraunkortasunaren adierazleetako bat), datuak desberdinak dira udalerrien arabera. Errenteriako egoera (hiri-lurzorua % 30,6) Gipuzkoako batez bestekoa baino nabarmen hobea da (hiri-lurzorua % 20,1koa da Gipuzkoan), eta Oarsoaldeko gainerako udalerrietan datuak askoz baxuagoak dira. Lezon (% 8,9) eta Pasaian (% 10,6) daude egoera negatiboenak; izan ere, Oiartzunen (% 8,8) landa-ingurunea eta hiri-ingurunea lotuta daude eta dentsitate txikiagoa dago, beraz, egoera kualitatiboki positiboagoa da.
- Biztanleko eskuragarri dagoen hornidurari dagokionez, egoera nabarmen okerragoa da; kasu horretan Oiartzun salbuespena da. Gainerako udalerririk Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik daude (18,2 m²/biztanle) , eta batez ere Pasaia nabarmentzen da, biztanleko 5 m² besterik ez baitu. Lezon 11,4 dago, eta Errenterian 14,0. Baina posizio bera dute hiriko eta landa guneko EAEko beste udalerririk batzuekiko, nahiz eta egoerak ezberdinak diren.

Parke, lorategi eta berdeguneek hartutako azalerak. Oarsoaldeko udalerririk				
Udalerririk	Hiri-lurzorua gainerako %	EAEko rankinga	M ² /bizt.	EAEko rankinga
Errenteria	30,6	29	14,0	156
Lezo	8,9	139	11,4	174
Pasaia	10,6	116	5,0	222
Oiartzun	8,8	142	19,1	118
Gipuzkoa	20,1		18,2	

Iturria: Udalmap 2009. 2011n eguneratutako datuak.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

7.2 Hiriko berdeguneak

- Islatutako emaitzen arabera, egokia dirudi Pasaiaaren analisi zehatzagoa egitea, erreferentzia gisa orain indarrean diren Arau Subsidiarioetan (1997/10/31koak) jasotako espazio libreen hornidura hartuta.
- Dokumentu horretan, eta Lurzoruaren Legea aintzat hartuta, hiriko espazio libreek 13 m²/bizt. izan behar zutela ezarri zen. , Beraz, Pasaia osorako 257.829 m² behar ziren Arau Subsidiario horien helburuan. 1997an zegoen egoerarekiko gabezia "ikusgarritzat" kalifikatzen du dokumentuak. Izan ere, hornidura 19.175 m² eskasekoa zen, hau da, biztanleko 1,04 m², eta horietako batzuk "nahikoa urbanizatu gabe".
- Ahal zen neurrian egoera arintzeko, Arauek 138.221 m²-ko azalera lortzea planteatzen zuten, hau da, biztanleko 6,97 m² lortzea. Datu horrek hirigintza-legediak eskatutakoaren erdia eskas gainditzen du.
- Barrutika, abiapuntuko egoera, alde nabarmenik gabe, larriagoa da San Pedro - Trintxerpen, hiriko espazio libreei dagokienez biztanleko 0,96 m² baitago. Helburuei dagokienez ere ez da hain handinahia, biztanleko 5,59 m² lortzea baitu helburu.

Hiri-espazio libreak. Pasaia				
Udalerría	1997ko azalera (m ²)	M ² /bizt.	Arau Subsidiarioetan proposatutako azalera (m ²)	M ² /hab
Donibane	3.716	1,29	26.369	8,38
San Pedro-Trintxerpe	10.220	0,96	61.845	5,59
Antxo	5.239	1,09	50.012	8,88
Pasaia, guztira	19.175	1,04	138.221	6,97

Iturria: Pasaia Arau Subsidiarioak. "A" Memoria dokumentua.

- Gaur egun, eta Arauetako proposamen batzuk gauzatu, gabezia oso altua da eta bereziki San Pedro eta Trintxerpe barrutietan. Topografia gorabeheratsuak kolonizazioa zailtzen du eta zaharkitutako espazioak lehengoratzeko potentzialtasuna eskasa da, portuko eremu aintzatespena dela-eta. Beraz, ezinezkoa izan da neurri handiko ekintzak egitea, Antxon egin diren modukoak eta hiri-espazio libreen gabeziak konpentsatzea lortu dutenak.

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

7.3 Naturagune babestuak

Lurraldearen erdia, Natura 2000 Sarean, Pasaian duten garrantzia nabarmenduta

- Natura 2000 Sarearen Kontserbazio Bereziko hiru Eremuk azterketa-eremu barruan dute zati handi bat: Ulia, Jaizkibel eta Aiako Harria. Azken hori Parke Naturala ere bada. Uliako Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) osoa azterketa-eremuaren barruan dago, gehiena Donostiako udalerrian. Aiako Harriak ere azalera gehiena eremuan du, % 81,4 Oarsoaldeko udalerrietan, eta azaleraren % 3,1 Donostiako udalerrian dago. Jaizkibekek ere eremu handi bat (% 40,0) eremuan du, gainerakoa Hondarribikoa da.

Natura 2000 Kontserbazio Bereziko Eremuak					
Udalerria	Ulia KBE (Ha)	Jaizkibel KBE (Ha)	Aiako Harria KBE (Ha)	Guztira (Ha)	Lurraldearen gaineko %
Errenteria	--	--	1.685	1.685	52,4
Lezo	--	148	--	--	17,2
Oiartzun	--	--	3.030	3.030	50,9
Pasaia	3,4	815	--	818,4	72,4
Guztira	3,4	963	4.715	5.533,4	49,6
KBE- en gaineko %	8,0	40,0	81,4%		

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

- Guztira 5.533,4 ha dira Oarsoaldeko udalerrien barruan, hau da, lurraldearen azalera osoaren erdia. Adierazgarria da babestutako eremuen zenbateko azalera dagoen Pasaian (% 72,4), Errenterian (% 52,4) eta Oiartzunen (% 50,9), eta aldiz, Lezon zer urria den (148 ha, udalerraren % 17,2). Erreferentzia gisa, adierazi behar da Gipuzkoan Natura 2000 Sarean sartutako azalera % 19,4koa dela.
- Komunitateko intereseko espezie eta habitatak daude eremu horietan, bai itsasertzeko inguruari, bai mendiko inguruari lotuta, eta horretan oinarritzen dira eremu horiek babesteko arrazoiak. Kudeaketa-neurrien dokumentu bat dute (Ulia-Jaizkibelen kasuan partekatuta). Eusko Jaurlaritzak onartuta du dokumentua eta kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio. Sartutako Uliako lursail guztiak eta Jaizkibekek eta Aiako Harriko zati handi bat titulartasun publikokoak dira, eta udalerrien jabetzakoak. Babes maila handia izanik ere, eremu horien kalitatea duten potentzialetik urrun dago, eta aipagarria da Jaizkibel eremuaren barruan maniobra militarren eremua dagoela, esaterako.
- Eremu horiez gain, ingurunean dago Lau Haizeta Parkea (602 ha, Errenteria, Donostia eta Astigarraga hartzen ditu) eta Ulia Parkea ere (31,8 ha, Donostia). Hiri inguruko berdeguneak dira, baina balio natural eta historiko handikoak, eta horietan bioaniztasuna eta ekipamendu ludiko eta kulturalak hobetzeko ekintza puntualak egin dira. Pasaian dagokionez, Jaizkibelen aisialdiko ekipamenduak ere egin dira.
- Exekuzioan diren neurriez gain, eta KBE-en kudeaketako dokumentuetan aurrez ikusitakoez gain, udalek hiri inguruko berdeguneetan ekintzak egiten dituzte. Bestalde, hainbat erakundek babestutako proposamen zientifiko bat dago Ulia eta Jaizkibel itsas zerrendan babestutako itsas eremua sortzeko, eremuko itsas fatxada osoa osatzeko, estuarioko eremua salbu.



II. ATALA


Ekintzen Mapa








PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

Pasaiako Badia biziberritzeko bektoreak

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEAK eta BERTAN BIZI DEN BIZTANLERIAREN BIZI KALITATEA HOBETZEAK ondorengo jarduerak kontutan hartu behar ditu:





-  Portua-Hiria erlazioaren hobekuntza
-  Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza
-  Jarduera ekonomikoaren sustapena
-  Interes naturala duten eremuen hobekuntza
-  Ingurunearen hobekuntza
-  Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza
-  Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Portua-Hiria erlazioaren hobekuntzarako jarduerak



1

Herrera Iparraldea eta Mendebaldea berrantolatzea



2

Pasaiako itsas frontea: Trintxerpe eta San Pedro



3

Pasaiako arrantzako lonja: erabilera publikorako espazio berriak




13

ADIF-en trenbideak murriztea Antxon

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza




4
Euskotren-eko Topo
geltokirako sarbideak



15
Luzuriagan etxebizitzaren eta
 ekipamenduen garapen
 urbanistiko berria



8
Igogailua Escalerillas-en



24
Bidegorria eta Lezo-Pasai Donibane
 loturako espaloiak zabaltzea

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Jarduera ekonomikoaren sustapena




17

Papin-Molinao industrialdea



23

Nabalaldea industrialdea



28

Gaintxurizketa plataforma logistikoa



30

Zinealdea-Lintziringaina



32

Nekazaritza ekologikoa Lezon

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Interes naturala duten eremuen hobekuntza



10

Ulia-Jaizkibel eta itsas inguruko ekimenak



18

Artxipi parkearen egokitzapena eta bere lotura Lau Haizetarekin



12

Arrobitxulo ingurunearen berrantolaketa




22

Alabortza kala berreskuratzea

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Ingurunearen hobekuntza



11

Txingurri erreka



21

Pasai Donibaneko saneamendua



20

Portuko jarduerak eragindako kutsadura atmosferiko, akustikoa eta urena murriztea




27

Oiartzun ibaia, Zubitxo eta Altzate

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza



5

Herreratik portuko zirkulaziorako sarbidearen irtenbideak



14

Euskotren-eko Topoa Antxon eta Erreterian lurperatzea



19

Txalupa motordun zerbitzuak hobetzea



25

Lezoko saihesbide berria



29

GI-2638 eta N-1 errepideen arteko Iparralde-Hego lotura Lezon



26

Lezoko Altamirako biribilgunea



31

Oiartzundik igarotzen den trafikoa hobetzeko aukeren azterketa

IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza



Ziriza etxea



Proisa eraikina



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskaintza publikoa Pasaian



Luzuriaga eraikina

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

HERRERA IPARRALDEA ETA MENDEBALDEA BERRANTOLATZEA

1.

Bi zonalde dituen lurralde-eremua da: Iparraldeko Herrera da eraitsitako portuko instalazio zaharrak dituen eremua, eta Euskadi Etorbidearen bidez Trintxerperekin hiri-espazioa partekatzen du. Eremu horren Mendebaldean, oinezkoen ibilbidea dago. Trintxerpe, Gomistegi, Bidebieta eta La Paz-eko herritarrek erabiltzen dute Topoaren geltokira joateko. Mendebaldeko Herrerak oinezkoen bide horren eta Bidebieta bizitegi-gunearen arteko eremuari egiten dio erreferentzia.

Pasaiako Badia biziberritzeko orduan eremu hau garrantzitsuenetako bat da. Herritarren ikuspuntutik Pasaiako Badiaren aukera-eremu nagusienetakoa da Pasaiako udalerriko eta bereziki Trintxerpeko eta haren inguruneke desoreka soziourbanistikoak gainditzeko.

Denboran zehar hainbat antolamendu-proposamen aztertu izan dira eremu horretarako; horien artean Urban Plana, Badia Biziberritzeko Masterplanek aurkeztutakoak, Jaizkibiak egindakoa edo Herrera Herrira herritar-plataformak sustatutakoa nabarmendu behar dira.

Edonola ere, Pasaiako Udalak lur horien desafekzioa eskatzen du eta udalerriko aisialdia, kultura eta ekonomia sustatzera bideratutako ekipamenduak eta espazio librea garatzea eskatzen du.

Portuko Agintaritzak eremuak portu-eremuaren izaera izaten jarrai dezan eskatzen du (Portuko Bigarren Lerroa) merkantzia berrien eskaerari erantzuteko eta txertatzeko. Dena den, hiriaren eta portuaren arteko ertzak kualifikatu behar direla uste du (Orientabide Estrategikoen Dokumentua).

Etorkizunean garatuko den proiektuak Herrera Iparraldean eta Euskadi Etorbidean dauden aparkalekuen berrantolaketa hartu beharko du kontutan.

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintaritza, Pasaiako Udala



Kokapena/Udalerria: Pasaiako

Gaien esparrua: Portua-Hiria erlazioaren hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PASAIKO ITSAS FRONTEA: TRINTXERPE ETA SAN PEDRO

2.

Proposatutako ekintza Pasaiako hiri-frontea berritzea eta egokitzea da, Trintxerpe eta San Pedro distrituetan.

Hiriko eta portuko ertzak kualifikatzea da helburua; horrek espaloiak egokitzea, hiri-altzariak eta zuhaitzak mantentzea, baita hiri-elementu berriak sortzea ere suposatzen du, portuaren eta hiriaren artean lotura-ertza birsortu ahal izateko.

Euskadi Etorbidearen hirigintza eta bidegorri baten sorrera eta *Pescadería* eta *Hospitalillo* kaiak egokitzea daude ekintza nabarmenen artean. Horrez gain, Trintxerpen eta San Pedron erabilera publikoko eremu berriak sortzea ere proposatu da. Ekintza horiek jaso ditu Portuko Agintaritzak "Orientabide estrategikoak" dokumentuan.

Ekintza horrekin lotutako beste ekintza batzuk ere badaude, esaterako, Lonja berria eta goiko terraza erabilera publikorako garatzea, edo Trintxerpetik Euskotren-en Topo-rako sarbide segurua eraikitze beharra. Herrerako Iparraldeko eta Mendebaleko eremuaren berrantolaketak eragin zuzena du ekintza honengan*.



Kokapena /Udalerria: Trintxerpe, San Pedro

Gaien esparrua: Portua-Hiria erlazioaren hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala, Eusko Jaurlaritz, Pasaiako Portuko Agintaritz

(*) Ekintza horien garrantzia kontuan hartuta, lan honetan banakako ekintza gisa sartzea erabaki da.

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PASAIKO ARRANTZAKO LONJA: ERABILERA PUBLIKORAKO ESPAZIO BERRIAK

3.

Arrantzako lonjaren eraikin berriak estalkian erabilera publikoko lorategi goratua biltzen du, eta horri esker, espazio berria sortzen da, begiratoki ireki gisa, Pasaiako Badiara begira.

Lonja berriaren eraikina ingurunean integratzeko, estalkia lorategi gisa erabiliko da, arrapala eta eskailera bidez igo daiteke bertara kaletik. Hala, Badiaren ingurune oinezkoen ibilbidea ez da etenda geratuko eta lonjaren gainetik pasatuko da.


Lorategidun estalkia garatzeko proiektua idatzita dago, eta exekutatzeko, guztira, 3 milioi euroko aurrekontua ezarri da.

Ekintzaren finantzaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku egongo da eta Pasaiako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, estalki berria exekutatu ahal izango da horri esker.



Kokapena /Udalerria: San Pedro, Portua

Gaien esparrua: Portua-Hiria erlazioaren hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala, Pasaiako Portuko Agintaritzia eta Gipuzkoako Foru Aldundia

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

EUSKOTREN-EKO TOPO GELTOKIRAKO SARBIDEAK

4.



Ekintzaren helburua Topoko geltokira (Euskotrenen Hendaia-Lasarte linea) Trintxerpetik sarbidea egiteko oinezko bide berria egokitzea eta kualifikatzea da, orain geltoki berria inauguratu ostean (2013ko martxoan) egokituta dagoen eta Kontsignatario kalearen amaieran dagoen oinezkoen bidea hobetzeko. Pasabide horrek Trintxerpetik Toporako sarbidea errazten duen arren, haren irisgarritasuna eta segurtasuna ez dira oso onak.

Proposatutako sarbide berrirako alternatibak portuko lurrean daude. Horri dagokionez, Topora joateko oinezkoen bideen kualifikazioa Portuko Agintaritzaren dokumentuan sartutako ekintzetako bat da ("Orientabide Estrategikoak" dokumentuan).

Ekintza hori Badia Biziberritzeko Pasaiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenean jasota dago. Eraikuntza-proiektua idatzita dago eta exekuziorako 500.000 euroko aurrekontua ezartzen du.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2015ean 380.000 euroko aurrekontua esleitu du ekintza hori garatzeko.

Aurrera egiteko behar diren ekintzen artean eragindako eremuetan dauden material pilaketak (Eusko Jaurlaritzarenak) kentzea beharrezkoa da.



Kokapena /Udalerria: Herrera, Portua

Gaien esparrua: Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Pasaiako Udala, Eusko Jaurlaritzak



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

HERRERATIK PORTUKO ZIRKULAZIORAKO SARBIDEAREN IRTENBIDEAK

5.

Ekintza honen helburua hiriko trafikoetatik Portura sartzen diren trafiko astunen bereizketa kontuan hartzea da, Trintxerpen Gomistegiko biribilgunearen funtzionamendua errazteko eta eragina duen inguruneke herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berrikusten ari den ekintza da. Horrekin lotuta, aldez aurreko proiektu bat izan zen (2011 urtea), eta errealitate ekonomiko berriaren aurrean eta aurrekontu mailako egoera zela eta baztertu egin zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak, irtenbide egokiak emateko, proiektu berri bat idazteko lizitazioa ateratzea aurrez ikusi du, 2014 amaiera baino lehen.


Portuko Agintzaritza eremu honetatik portuko zirkulaziorako sarbidearen hobekuntzarekin ados dago. Honez gain, zirkulazioaren bereizketarako kontuan hartu beharreko beste alternatiba baten ikerketa planteatzen du, Kaputxinoen (Errenterian) eremuan bere garaian zegoen portuko sarbidea berriz ere irekitzea ("Orientabide Estrategikoen Dokumentua ")



Kokapena /Udalerria: Herrera eta Trintxerpe

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintzaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ZIRIZA ETXEA

6.

Ziriza Etxea izenez ezagutzen den eraikin zaharra berreskuratzea eta kultura etxe eta gizarte etxe gisa erabiltzea Trintxerpeko auzoan.

Eraikina Portuko Agintaritzaren jabetzako Ziriza enpresa ontzijabearen nabe industrial zaharra da. Hiria eta portuaren arteko ertzeko eremuaren barruan dauden eraikinetako bat da.

Ekintza hau Badia biziberritzeko Pasaiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenean jasota dator. Haren garapenerako, eraikina kultur etxe eta gizarte-etxe gisa egokitzeko beharrezko birgaitze-obrak egin behar dira (obra batzuk eginda daude, jadanik).

Proposatutako ekintza garatzeko, haren okupazioa arautu behar da eta horretarako, akordioak eta baldintzak landu behar dira, herritarrek erabili ahal izan dezaten.



Kokapena/Udalerria: Trintxerpe

Gaien esparrua: Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala, Pasaiako Portuko Agintaritza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKAINTZA PUBLIKOA PASAIAN

7.

EAEko Eskola Mapak Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako ikastetxeen sarearen antolamendu- eta planifikazio-irizpideak ezartzen ditu. Mapa honen arabera, Pasaia bi eremutan dago banatuta: 273. Eremua (Donostia-Ekialdea, Donostia eta Pasaia barne hartzen ditu) eta 281. Eremua (Errenteria, Lezo eta Oiartzun udalerriekin).

Pasaian derrigorrezko bigarren hezkuntzako zentro publikorik ez dagoenez, udalerrian bizi diren ikasleek ingurune udalerrietako ikastetxeetara joan behar izaten dute. Antxon bizi diren ikasleak Errenteriako ikastetxeetara joaten dira; Donibanekoak, Lezora, eta San Pedrokoak eta Trintxerpekoak, berriz, Donostiara.

Karmengo Amako ikasleen gurasoen batzordeak, beste auzo-elkarte batzuekin batera egindako eskaeran, Pasaian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikastetxe publikoa ezartzea eskatzen dute, Pasaia ikasleek beste udalerrietara joan beharrik izan ez dezaten.



Kokapena/Udalerria: Pasaia

Gaien esparrua: Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Pasaia Udala



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

IGOGAILUA ESCALERILLAS-EN

8.

Herrera eta Hospitalillo kaiaren arteko altuera-aldea gainditzeko, eta Trintxerpe eta Buenavista-Herrera bidegorrian ibiltzen diren oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko, "Escalerillas" izenez ezagutzen den pasabidean igogailua instalatzea proposatzen da. Pasabidearen jabetza Portuko Agintaritzarena da, portuko eremuan baitago, zehazki, Hospitalillo kaian.

Ekintza hau Badia biziberritzeko Pasaiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenean jasota dator.



Kokapena/Udalerria: Pasai

Gaien esparrua: Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintaritza, Pasaiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PROISA ERAIKINA

9.

Proisa ontzietako motorrak eraikitzeko eta konpontzeko fabrika izandakoaren eraikina erortzeaz zegoela aitortu zuen Udalak 2011n.

Ordutik, eraikinaren etorkizuna eztabaidatu eta planteatu izan da, eta eraista edota sendotzeko obrak egiteko aukera ere aztertu izan da, jatorrizko higiezinaren iraupenerako eta zaharberitzeko.

Testuinguru horretan, eta eraikinaren etorkizuna erabaki ahal izateko, Pasaiako Udalak parte-hartze prozesua egin du.


Herritarren parte-hartze prozesua amaitutakoan, lantaldea sortu dute herritarren erabilerarako etorkizuneko ekipamendua definitzeko. Edozein kasutan, horretarako planteatutako proiektua eraikina ekipamendu edo kultura etxe bihurtzea edo helburu horretarako kokapen berean antzeko beste eraikin bat egokitzea izan da.

Proisa eraikina izan da Oarsoaldea eskualdean Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu dituen parte-hartze prozesuetan aukeratutako proiektuetako bat.



Kokapena /Udalerria: San Pedro

Gaien esparrua: Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala.

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ULIA-JAIZKIBEL ETA ITSAS INGURUKO EKIMENAK

10.

Gaur egun, Ulia itsasertza eta Jaizkibel mendia Natura 2000 Sarearen baitan babestutako eremu gisa daude kalifikatuta. Gainera, babes-eremua itsas ingurunera hedatzeko proposamen zientifikoa ere badago, hainbat erakundek babestuta, eta hor Ulia-Jaizkibelek Txingudiko Badiara doan itsasertza ere sartuta dago.

Badia biziberritzeko lanen testuinguruan sustatu beharreko ekintza gisa planteatu dira honako hauek: Ulia eta Jaizkibel Kontserbazioko Eremu Berezi gisa aitortzeko dokumentuan sartutako kudeaketa-neurriak aplikatzea, korridore ekologikoak babestea, hiriguneekin loturak egiteko ibilbideak, Erroteta errota interpretazio- eta harrera-espazio gisa berreskuratzea, Geoturismoa garatzen laguntzea eta itsas ingurunearen babesa sustatzea.


Uliari dagokionez azpimarratu daiteke Donostiako Udalak orain dela gutxi lantzen hasi den NU. 02 Ulia naturgunearen babesa eta kontserbaziorako Plan Berezia".

Era berean, eta Jaizkibeleko ingurunea hobetzearen arloan, lehen zentral termikoak erabiltzen zituen tentsio altuko lineak kendu behar direla planteatu da. Horiek Lezoko nahiz Oiartzungo korridore ekologikoetako eremuei eragiten diete, eta paisaiari ere eragiten dio.



Kokapena/Udalerria: Donostia, Pasaia eta Lezo

Gaien esparrua: Interes naturala duten eremuen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Donostia, Errenteria, Lezo eta Pasaia Udalak, Eusko Jaurlaritza, Ingurumen Ministerioa

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

TXINGURRI ERREKA

11.

2006 eta 2008 artean, Añarbeko Urak enpresak eta Donostiako Udalak, Herreran gertatzen ziren uholdeen arazoari irtenbidea eman nahian, Txingurri errekan inbertsioak egin zituzten.


Ekintza hauek egin zituzten: erreka-aren isurbidea eraiki eta Txingurri eta Herrera arteko pasabideen arteko lotura-bidea egin zuten. Horrez gain, erreka horretara isurtzen ziren ur zikinen kanalizazio-sisteman zeuden anomaliak konpondu dituzte. Horrez gain, Herrerako punpaketako estazioan ere zaharberritzea egin zuten.

Gaur egun, dena den, garatutako sektoreetako saneamendu-gailuaren errematea egin behar dela uste da, baita Txingurriko erreka-aren kolektore biltzaileena ere.



Kokapena /Udalerría: Donostia

Gaien esparrua: Ingurunearen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Donostiako Udala, Añarbeko Urak

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ARROBITXULO INGURUNEAREN BERRANTOLAKETA

12.

San Antonio-Montesol (Intxaurrondo) urbanizazioaren eta trenbidearen (ADIF) artean dagoen espazioa. Arrobitxulo harrobi zaharraren eta N-1 errepidearen bide zaharra arteko eremua da. Jende asko ibiltzen da eremu horretan; izan ere, Intxaurrondoko Txaparrene pasealekutik Herrerara doan bidegorria pasatzen da bertatik. Eremua Donostiako Udalaren jabetzakoa da eta urbanizatu gabe dago, zaindu gabeko itxurarekin, kontrolatu gabeko landarezarekin, eta erabilera irregularrak ugaritu dira bertan, esaterako, baratzeak.

Auzo-elkarteetatik aspalditik ari dira eskatzen ingurune hori egokitzeko eta balioa emateko, hain zuzen ere, horren inguruan hainbat ekintza egin dira (ideia-lehiaketa, garbiketeta-lanak auzolanean ...).

Donostiako udalak aurrekontuaren kontu-sail bat bideratu du 2015ean hori egokitzeko (sastrakak kentzea, altzariak jartzea...). Horrez gain, ekintza garrantzitsuagoa garatzeko proiektua jarri du abian: ingurunea parke irisgarri bihurtzea, kokapenaren orografia eta Herreran N-1 errepide zaharrean kirol-instalazioak garatzeko lanak errespetatuta.



Kokapena/Udalerria: Donostia

Gaien esparrua: Interes naturala duten eremuen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Donostiako Udala



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK


ADIF-EN TRENBIDEEN KOPURUAREN MURRIZKETA ANTIXON

13.

Portuaren ingurunean bizi-kalitatea hobetzeko eta portuaren eta hiriaren arteko ertzak kualifikatzeko garrantzitsua izan daitekeen ekimena da. ADIFen jabetzako trenbide multzoa da, herrigunearen eta portuko lurzorua artean dagoena.

Ekintzak egungo trenbide eremua berrantolatzea eskatzen du, aurretik jarduerarik gabeko bideak ezabatuz eta geratzen diren azalerak Antxo eta Buenavistari zerbitzua ematen dien hiri-eremuetara bideratuta.

Zehazki, puntu garrantzitsuak dira Nafarroa Hiribidearen inguruko tartea Antxon eta Buenavista Hiribidea.



Kokapena/Udalerria: Pasai Antxo

Gaien esparrua: Portua-Hiria erlazioaren hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: ADIF, Pasaiako Udala

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

EUSKOTRENEKO TOPOA ANTIXON ETA ERRENERIAN LURPERATzea

14.

Euskotreneko Hendaia-Lasarte linea (Topoa) berritzeko eta egokitzeko prozesuan sartutako ekintza. Badia ingurunean ekintza honek eragina du Pasai Antxo eta Erreneria udalerrietan.

Pasai Antxon aurrez ikusitako ibilbideak Herrera eta Altza artean 1.050 metroko luzera du eta lurpetik pasatzen da bere osotasunean, geltokia ere bai. Zati hau orain egiten ari dira eta Obra Zibila gauzatzeko epea 34 hilabetekoa da baina 2017an izango da azpiegitura hau prest.


Errenerian trazaduraren zati bat lurperatu nahi da, trazaduraren gainerako zatirako bidea bikoiztuz eta Galtzaraborda eta erdiguneko geltokiak lurpekoak bihurtuz.

Altza-Galtzaraborda zatia, berriz, proiektu-fasean dago; lurpeko zatia izango da bere osotasunean. Bertan Pasaiako geltoki berria egitea aurreikusten da, gaur egungo Galtzarabordako geltokiarekin lotuko dena. Proiektu-fasean dagoen obra hau burutzen denean Badia zeharkatzen eta Herrera eta Erreneriako geltokiak lotzen duen trenbide eremua libre uztea posible izango da. Erreneriako tailerrak Arasora eramango dira eta, ondorioz, lur horiek libre geldituko dira.



Kokapena /Udalerria: Antxo eta Erreneria

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Euskotren (Eusko Jaurlaritz), Pasaiako Udala, Erreneriako Udala

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

LUZURIAGAN ETXEBIZITZEN ETA EKIPAMENDUEN GARAPEN URBANISTIKO BERRIA

15.

Pasai Antxoko Luzuriaga fabrika zaharraren inguruan babes ofizialeko eta etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen lehen fasea eraiki ostean, ondoko lurzoruan hirigintza-garapen berria egitea planteatu da.


Luzuriagako lehen fasean, Visesak sustatutakoan, babes ofizialeko 144 etxebizitza eta 68 etxebizitza sozial eraiki dira guztira, garaje eta trastelekuekin, eta pisuak 2014ko urrian entregatu dira, ezarritako egutegiaren arabera.

Bigarren fasea Luzuriagako orube hutsean egitea aurrez ikusita dago eta alokairuko 73 etxebizitza sozial berri egitea, anbulatorioa izango den horniketa-ekipamendu bat, eta bulego eta merkataritzarako lokalak egitea biltzen du. Aparkalekuetarako 500 leku baino gehiago ere biltzen ditu ekintzak.



Kokapena/Udalerria: Antxo

Gaien esparrua: Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: VISESA, Pasaiako Udala

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

LUZURIAGA ERAIKINA

16.

Luzuriaga fundizio-enpresarena izan zen bulegoen eraikin-pabiloia; hura eraitsi ostean geratzen den elementu bakarra da.

Eraikina Donostiako udalerrian dago, eta haren fatxada nagusia Eskalantegi kaleko eskuin espaloian dago; hau da, Donostia eta Antxo arteko muga geografikoan.

Eraikin honekin lotuta, izango duen helburuaren inguruko eztabaida sortu da. Hainbat planteamendu egin dituzte eragile sozialek, kulturelek eta auzoetakoek, eta horietako gehienek dotazio-ekipamendu bihurtzearen alde egin dute, garatuko den auzo berriari eta Pasaiako udalerrri osoari zerbitzua eman diezaion.


Inplikaturako eragile guztiek jarduera hori lantzeko urgentzia partekatu dute (orain gutxi okupazio- eta segurtasun-arazoak sortu dira eraikinean). Dena den, jabeen artean daude Kreditu Ofizialaren Institutua (ICO), Gipuzkoako Foru Aldundia eta Nafarroako Foru Gobernuak. Eraikinean edozein jarduera garatu ahal izateko, beraz, ezinbestekoa da higiezina jabetza publikora pasatzea. Aurrera egiteko akordio ekonomikoa lortu behar da.

Inplikaturako eragile nagusiak: Donostiako Udala, eraikinaren jabeak (ICO, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Nafarroako Foru Gobernuak), Pasaiako Udala



Kokapena /Udalerria: Donostia eta Antxo

Gaien esparrua: Gizarte eta kultura ekipamenduen hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PAPIN-MOLINAO INDUSTRIALDEA

17.

Papin-Molinao industrialdea Donostiako udalerrian dago, Antxorekin mugan. Hainbat sektoretako hogeit bat enpresa biltzen ditu (forja, plastikoa, altzairu herdoilgaitza, arte grafikoak, banaketa eta eraikuntza, besteak beste), eta 300 lagun ingururi ematen die lana. Dena den industrialdeko hainbat zonalde egoera txarrean daude.

Proposatutako ekintza industrialdeko enpresak eskatutako bide-sarbide berria eraikitzea da. Bide horren helburua da kamioiek Antxoko hiri-bilbea zeharkatu beharrik ez izatea, neurri handiko ibilgailuentzat horrek arazo handiak sortzen baititu.

Donostiako Udalak bide berriaren obren esleipena epe motzera egingo duela aurrez ikusten da. Proiektuak 1,5 milioi euroko aurrekontua du.


Pasaiako Udala Donostiako Udalaren proposamenaren kontra azaltzen da industrialdeak ingurunearekiko duen kokapena ez dela bateragarria uste baitu, eta beste erabilera batzuk proposatu ditu.



Kokapena/Udalerria: Donostia

Gaien esparrua: Jarduera ekonomikoaren sustapena

Inplikaturako eragile nagusiak: Donostiako Udala, Pasaiako Udala



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ARTXIPI PARKEAREN EGOKITZAPENA ETA BERE LOTURA LAU HAIZETAREKIN

18.

Hiri inguruko parkea, Artxipi bideko eremuan dagoena, Donostiako Altxa auzoan. Eremuak hainbat ekipamendu ditu, haur-jolasen parke bat, esaterako, futbol-zelai bat eta askaldegia bat mahai eta guzti. Kokapena dela eta, Molinako erreka ertzean dagoenez, oso irisgarria da bai Antxoko bizilagunentzat, baita Altxako, Buenavistako, Eskalantegiko eta Esnabideko bizilagunentzat ere.

Hala ere, gaur egun nahiko utzita dago, bertako ekipamenduak nahiko hondatuta baitaude, eta parkearen egoera orokorra ere ez da oso ona.


Auzo-elkarte ugari eskatutako eta proposatutako jarduerarekin, parkea txukunduko litzateke, dauden ekipamenduak konpondu eta/edo ordezkatu lirateke, eta aukera, behar eta etorkizuneko erabileren arabera osotasunean ingurunea berriz diseinatuko litzateke.

Duen kokapena eta neurria kontuan hartuta, "birika berdea" izan liteke inguruneke biztanleentzat eta Lau Haizeta parkearekin lotura zuzena egiteko elementua. Gainera, San Markoseko zaborteziaren betirako itxierarekin, parke honen potentzialtasuna zabaltzen da, ingurumen, paisaia eta ondareko balio handiko hiri-inguruetako espazio berde handi bat sortzeko aukera emanez.



Kokapena/Udalerria: Donostia

Gaien esparrua: Interes naturala duten eremuen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Donostiako Udala

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

TXALUPA MOTORDUN ZERBITZUAK HOBETZEA

19.

Pasaiako Portuko Agintaritza da Pasaiako Badian txalupa motorduneari garraio publikoko zerbitzu erregularra egiteko emakida ematen duena.

Zerbitzua Portuko Agintaritzak ematen du.

Proposatutako ekintzak Pasaiako Badian txalupa motordunaren zerbitzua hobetzea lortu nahi du. Hain zuzen ere 2 ekintza proposatzen dira:

- Txalupa motordunaren zerbitzua Mugi txartelean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifa-sistema bateratuan sartzea.
- Txalupa motordunaren ibilbidea zabaltzea, geltoki berriak sartuta Antxon eta Trintxerpen (Hospitalillo kaia), Pasaiako barrutiak integratu ahal izateko.

Txalupa motordunen zerbitzua Mugi sisteman sartzearekin lotuta, Garraioaren Lurralde Agintaritza bideragarritasuna aztertzen ari da.

Txalupa motordunen ibilbide zabaltzeari dagokionez, eskaeraren analisi bat egin behar da benetako beharrak jakiteko eta egokitasuna baloratzeko.

Geltoki berriei dagokienez, Trintxerperako planteatutakoak arazo handirik eragiten ez badu ere, Antxokoan, Portuko Agintaritza aurka agertu da, segurtasun-araudiaren arazoak direla eta.

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintaritza, txalupa motordunaren zerbitzuaren emakida duen enpresa, Garraioaren Lurralde Agintaritza, Pasaiako Udala.



Kokapena/Udalerria: Donibane, Antxo, Herrera

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PORTUKO JARDUERAK ERAGINDAKO KUTSADURA ATMOSFERIKO, AKUSTIKOA ETA URENA MURRITZEA

20.

Materialaren zama-lanetarako portuko jarduerak, merkantzien mugimendua (txatarra, batez ere) eta Portuko jarduera ekonomikoari lotutako ibilgailu astunen zirkulazio handia direla eta, Pasaiako badian kutsadura atmosferiko eta akustikoaren maila handiak sortzen dira eta horrek ingurunean udalerrietan bizi diren biztanleei eragiten die.

Horrekin lotuta, Portuko Agintaritzatik eta "Pasaiako Portuaren ingurunean ingurumen-eragina kontrolatzeko eta zaintzeko Planaren" testuinguruan, hainbat jardura egin dute indarrean den araudiaren arabera Portuko ingurumen-kudeaketa hobetzeko. Neurri horien ondorioz, Portuan ingurumeneko kalitate orokorra hobetzea lortu da, bai uren egoeraren eta kudeaketaren arloan, bai airearen kalitatean, baita zarata murrizteari dagokionez ere, besteak beste.

Dena den, kutsadura atmosferiko, akustiko eta uren kutsadurako fokua badaude oraindik ere portuko jardueraren eraginez. Horrekin lotuta, Portuko Agintaritzak azken dokumentu estrategikoan urak bideratzeko eta arazteko azpiegituren obrak, merkantzien erabileraren zaintza eta plan kuantifikatu batean ingurumen-ekintzak sistematizatzea jarri ditu helburu gisa.

Testuinguru honetan, azpimarratu behar da Pasaiako Portuko jarduerari lotutako ingurumenaren hobekuntzarako erakunde arteko Mahaiaren lana. Mahai honetan Portuko Agintaritzak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Erretera, Lezo eta Pasaiako udalak parte hartzen dute.

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Portuko Agintaritzak, Pasaiako Badiaren Ingurumen Hobekuntzarako Mahaia



Kokapena /Udalerria: Pasaiako badia

Gaien esparrua: Ingurunearen hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

PASAI DONIBANEKO SANEAMENDUA

21.

Pasai Donibanen saneamenduko azpiegiturarik ez dutenez, hori izan da Pasaian aldarrikapen historikoetako bat.

2014ko urrian, Pasaiako Udalaren eta URaren artean lankidetzeta-hitzarmena adostu dute *"Pasai Donibaneko hondakin-uren biltzailea eraikitzeko eta Añarbeko Urak enpresaren saneamendu orokorreko sarera lotzeko proiektua"* idazteko.


Hondakin-uren biltzaile-intertzeptatzaile bat eraikitzeko eta Añarbeko Uren Partzuergoaren saneamendu-sare orokorarekin lotura egin arte beharrezkoak diren obrak definitzea da proiektuaren helburua. Era berean, ur-horniketako udal-sarea berritzea ere biltzen du, baita udaleko saneamendu-sarearen bigarren mailako kolektoreak, hiri-drainaketa eta gas, telefono eta energia elektrikoaren zerbitzuak lurperatzea ere.



Kokapena/Udalerria: Pasai Donibane

Gaien esparrua: Ingurunearen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: URA – Uraren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritz) eta Pasaiako Udala



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ALABORTZA KALA BERRESKURATZEA

22.

Alabortza kala Pasai Donibanen dago, Puntetako paseoaren amaieran. Ingurumen-balio bereziko eremua da, beraz, lehentasunezkoa da hura zaintzea. Hori dela eta, hainbat ekimenen bidez, bainu-eremu gisa berreskuratzeko eta leheneratzeko lanean ari dira, herritarrek erabili ahal izan dezaten.

Helburu horrekin garatutako ekintza nagusietako bat izan da hainbat urtetan Alabortza Eguna egitea, jai-giroko eta aldarrikapen-kutsuko eguna izan ohi zen, eta haren helburua hondartza eta haren ingurua garbitzea eta egokitzea izaten zen. Ekintza horrekin batera, Pasaiako Udalak ere egin ditu jarduerak, kantina berreskuratzea, esaterako, edo dutxa edo komunen zerbitzua egokitzea.


Proposatutako ekintza Alabortza Kala berreskuratzeko lanetan aurrera egiten jarraitzea da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak sinatutako lankidetzak-akordioan sartuta dago, gainera, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000 euroko aurrekontua ezarri zuen horretarako.

Pasaiako Udala Donibaneko Alabortza hondartza berreskuratzeko proiektua garatzen hasi da eta Pasaiako Portuko Agintaritzarekin, URA Uraren Euskal Agentziarekin eta Itsas Kapitaintzarekin elkarriketak izan ditu.



Kokapena/Udalerria: Pasaia

Gaien esparrua: Interes naturala duten eremuen hobekuntza



Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala, Pasaiako Portuko Agintaritza, URA Uraren Euskal Agentzia, Itsas Kapitaintza, Gipuzkoako Foru Aldundia

PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

NABALALDEA INDUSTRIALDEA

23.

Pasai Donibaneko Bortalaborda kaian dago Nabalalde industrialdea. 2009an inauguratu zuten eta haren garapena dela eta La Herrerako portuko eremuetan zeuden ontzigintzako eraikuntza eta konponketako sektore laguntzailearen enpresa eta instalazio batzuk eraman behar izateagatik sortu zen, ingurune hartako espazioak libre uzteko.

Portuko Agintaritzaren lurretan dago industrialdea eta guztira 35.000 m² baino gehiago ditu. Hiru pabiloi industrial ditu eta erabilera komertzialeko eraikin bat, guztira 16,268 m² dituela; aparkalekua ere badu. Industrialdea Portuko Agintaritzak Bidasoa-Oarsoaldeko Industrialdeari utzi dio 25 urtez alokairu-erregimenean. Sozietate horretan gehiengo duen bazkide gisa Sprilur eta Gipuzkoako Foru Aldundia daude, baita Oarsoaldeko eskualdeko udalerriak ere (Pasai, Erreterria, Oartzun eta Lezo).

Nabalaldean garatu beharreko erabilera eta jarduera ekonomiko gehienak Portuen araudietan zehaztuta daude, eta itsas industriara edo ontzigintzaren industriara lotutako jardueretara mugatzen dira.


Gaur egun industrialdeak desokupazio maila handia du. Sprilur-en datuen arabera okupazioa %60 ingurukoa da, beraz, aukera berriak aztertze beharra dago.

Inplikaturako eragile nagusiak: Bidasoa-Oarsoaldeko Industrialdea, Pasaiako Portuko Agintaritz



Kokapena /Udalerria: Donibane, Portua

Gaien esparrua: Jarduera ekonomikoaren sustapena



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

BIDEGORRIA ETA LEZO-PASAI DONIBANE LOTURAKO ESPALOIAK ZABALTZEAK

24.

Lezo-Pasai Donibane lotura-zatian bidegorri bat egiteko eta espaloiak zabaltzeko ekintza. Ekintza Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean sartuta dago.

Eragina duten udalerrietako biztanleek maiz eskatutako eskaria da. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako parte-hartze aurrekontuen prozesuan, proiektuak lehentasunezkatzat hartutako 11 proiektuen artean lehen postua izan zuen.

Gaur egun Lezoko Udala eraikuntza-proiektua idazteko prozesuan dago, eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.

Proiektuak Portuko lurren gainean hegal bat eraikitzea biltzen du, beraz, hori exekutatzeko, Portuko Agintaritzak Portuko Espazioetako Ordenamendu Plan Berezia modu puntualean aldatzea eskatzen du.

Proiektuaren kostua gutxi gorabehera 1,8 milioi eurokoa izango dela kalkulatzen da.



Kokapena /Udalerria: Pasai Donibane eta Lezo

Gaien esparrua: Hiri berriztatzea, irisgarritasunaren hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Pasaiako Udala, Lezoko Udala, Pasaiako Portuko Agintaritza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK


LEZOKO SAIHESBIDE BERRIA

25.

Portuko jardueren garapena eta Pasaiako portuko espazioan dagoen Nabalaldeko industrialdetik eratorritako jarduerak direla eta, Lezoko udalerraren hirigunean zirkulazio astun handia eta arriskutsua sortzen dute.

Gertakari horren aurrean, eta egoera arintzeko asmoz, udalerriko hirigunetik pasatzea saihestuko duen bide-irtenbidea artikulatzea planteatzen da, eta portuko egungo zirkulazioak handik kanpo bideratzea.

Lezoko Udaleko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean sartutako ekintza zen hori: *"izaera estrategikoa duen proposamena denez, eta presaz garatu beharrekoa denez, (...), ez dago Plan Orokorrearen programazioaren mende, eta ondorioz, akordio lortu beharko da Portuko Agintaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin portuko espazioa erabiltzeko baimenak lortzeko eta obrak egiteko finantzaketa lortzeko"*.



Kokapena/Udalerria: Lezo

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Lezoko Udala, Pasaiako Portuko Agintaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK


LEZOKO ALTAMIRAKO BIRIBILGUNEA

26.

Altamirako biribilgunea lotura-ardatza da, Lezon dago eta hainbat bidek egiten dute bat bertan. Donibane kalea eta Jaizkibel etorbidea GI-636 eta GI-2638 errepideekin lotzen ditu, eta arrisku tasa handia du; maiz izaten dira ibilgailuen arteko istripuak edo ibilgailu eta oinezkoen artekoak. Gainera, biribilgune hori oinezkoen eta bizikleten komunikazioari dagokionez oztopoa da Lezo eta Erreterria artean.

Bertatik pasatzen den bideko zirkulazio handia dela eta, bide ugarik bat egiten dutelako eta ondo seinaleztatu gabeko zebra-bidea dagoelako, komunikazio-lotura horren arrisku-tasa handia da, eta presazko esku-hartzea beharrezkoa da oinezkoen eta gidarien segurtasuna hobetzeko bertan.

Horrekin lotuta, Lezoko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak irtenbideak lantzeko konpromisoa hartu dute. Foru erakundeak ikerketa egingo du zebra-bideen kokapena hobetzeko eta egungo arazoari irtenbidea emateko. Lezoko udalak, bestalde, eremuko seinaleak eta argiztapena hobetzeko baimenak eskatu ditu.



Kokapena/Udalerria: Lezo

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Lezoko Udala



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

OIARTZUN IBAIA, ZUBITXO ETA ALTZATE

27.

Ekintza honek Oiartzun ibaiaren ibai zatian eragiten du. Errenteria eta Oiartzun udalerriei eragiten die, baita Zubitxo ibaiadarrari ere, Lezotik pasatzen denari.

Oiartzungo Udalak, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren azterketan (behin betikoz onartzeko zain dago), Oiartzun ibaiaren ardatza hobetzea lortu nahi du, hau da, korridore berde kategoria lortu nahi du, eta horretarako, ibai eta Arditurriko bidegorriaren arteko konexio-eremu berriak ezarri nahi ditu. Proposatutako ereduak oinezkoentzako eta bizikletentzako barne-sarea sortuko du. Oiartzun ibaiaren inguruan parkeez, eremu berdez eta hornidurez osatutako multzo handi bat proposatzen da.

Lezon Zubitxo erreka hobetzea ari dira pentsatzen, bai hiriko zatian, bai Arraitokiko eremuan. Buztinzuloko (Xoxolurra) zuhaitzietatik hasita, ibilbidean zehar leheneratzea hartu dute kontuan; izan ere, kalitate naturaleko eta paisaia-kalitateko ibai-korridorea eratu da.

Bestalde, Errenteriak, Plan Estrategikoan, Oiartzun ibai eta Altzate eremua (lehengo Campsa) biltzen ditu etorkizuneko bi eremu gisa. Oiartzun ibaiaren ardatzeko paisaia, funtzio eta ingurumen (saneamendua) mailako hobekuntza lortzea da helburua Errenteriako zatian Pasaiako Badian itsasoratzen den arte. Errenteriak eta Lezok eremu honen potentzialtasunak aprobeztatu nahi dituzte eta Altzate (gaur egun propietate pribatua) eta ibai bokalearen eskuinaldean dagoen portuko eremua erabilera mistoko aukera-eremu moduan hartzen dute, itsasadararen frontea leheneratuz eta kreatibitatearekin eta ikaskuntzarekin lotutako jarduera ekonomikoak txertatuz, baita etxebizitzak eta hirugarren mailako erabilerak ere.


Eremuan dagoeneko garapen-bidean diren edo aurrez ikusitako ekintza nagusietako batzuk honako hauek dira: Lekuonan Arte Eszenikoen zentro berria eraikitzea eta Oiartzun ibaiaren gaineko pasabidea aldatzea ibaiaren nabigagarritasuna hobetzeko, besteak beste. Udala hasi da Oiartzun ibaiaren inguruko Paisaiaren Ekintza Plana idazten. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza du.

Inplikaturako eragile nagusiak: Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Oiartzungo Udala, Alzateko jabeak, Pasaiako Portuko Agintaritzak, Añarbeko Urak



Kokapena/Udalerria: Errenteria, Lezo, Oiartzun

Gaien esparrua: Ingurunearen hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

LEZO-GAINTXURIZKETA PLATAFORMA LOGISTIKOA

28.


Plataforma logistiko intermodalen polo espaziala eta lurraldeko eskala orokorreko jarduera ekonomikoekin lotutako poligonoak garatzeko proposamena. Jarduera ekonomikoen poligonoak sare orokorrekin, bideko sareekin eta trenbidetakoekin zuzeneko konexioarekin daude hornituta.

Proiektuak, beste hainbat alorren artean, hiru bide-zabaleraren artean (iberikoa, IC eta metrokoa) tren-aldaketa intermodal moduan balio izatea lortu nahi du, Pasaiako portuko trafikoa hobetzea Iparra-Hegoa ardatzaren baitan eta Nafarroa-Ebroko Bailararantz errepide bidezko salgaiak trenez aldatzeko aukera eskaini nahi du. Bestalde, nazioarteko garraio intermodalaren katea ere hobetu nahi da.

Sustapen Ministerioaren agindu bati jarraituz, eta ETSren bidez (Euskal Trenbide Sarea), eskaera eta egin nahi diren lurzoruaren erreserba-beharrak aztertu dira. Egindako txostenek 91,13 hektareako azalera behar dela adierazten dute (bideko eta trenbideko konexioak sartu gabe)


Donostialdeko Lurralde Plan Partziala azpiegiturari buruzko gogoeta eta proposamena egiteko baliagarri izango da.

Inplikaturako eragile nagusiak: Eusko Jaurlaritzak, Sustapen Ministerioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Lezoko Udala, Oiarzungo Udala



Kokapena/Udalerria: Lezo, Oiarzun

Gaien esparrua: Jarduera ekonomikoaren sustapena



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

GI-2638 ETA N-1 ERREPIDEEN ARTEKO IPARRALDE-HEGO LOTURA

29.

Lezoko udalerrian konpondu beharreko egitura mailako arazo nagusietako bat hirigunean pasatzen den garraio astunaren zirkulazio handia eta jarraitua da.

Jarduera ekonomikoetarako bideratutako eremuen (Sagasti, Ipintza eta Iturrin, esaterako) egungo kokapenak, eta handik datozen zirkulazioen beharrezko banaketa dela eta, udalerraren hirigunetik pasatzen den zirkulazioa saihesteko, GI-2638 eta N-1 errepideen arteko lotura egingo duen, Lanbarreneko biribilgunearen altueran, zeharkako bide-ardatza egitea eskatzen du.


Horrekin lotuta, Lezoko udaleko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (2010) honako hau aurrez ikusi zuen: *"korridore horretatik udalerraren ekialdera doazen ibilgailuen zirkulazio guztiak GI-2638 eta N-1 errepideen artean proposatutako loturara bideratzea, Lanbarren biribilgunearen altueran. Ekintza hori hobekuntza nabarmena izango da udalerriko lurralde-antolamenduan eta herritarren osasunean onura argia izango du"*.



Kokapena/Udalerria: Lezo

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza

Inplikaturako eragile nagusiak: Lezoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

ZINEALDEA-LINTZIRINGAINA

30.

Oiartzunen, Lintziringaina eremuan dagoen ikus-entzunezko industria eta industria eszenikoarekin lotutako enpresetara bideratutakoa enpresa-parkea.

Ekimen pribatua da, 33.000 m²-ko gehieneko azalera du aurrez ikusita, eta garatzeko, Oarsoaldea eskualdeko Garapen Agentzia eta Sprilur erakunde publikoen babesa izan zuen, lurzoruen egokitze, hirigintza eta merkaturatzerako. Uneotan kudeaketa pribatuko ekimena da.

Proiektua hiru fasetan planteatuta zegoen, hauetatik bakarrik lehena garatu da: industrialdeko eraikin nagusia eraiki da (2011n amaituta). Eraikin honek grabazioak egiteko plató-ak, dekoratuak muntatzeko gelak eta entseguetarako, ediziorako eta posproduktiorako eremuak izan behar zituen, eta horrez gain, erabiltzaile diren enpresek erabiltzeko bulego eta artisten gelak ere aurreikusten ziren.

Geroko faseek prestakuntza-zentro bat, hainbat zerbitzu eta bulego eta hotel bat eraikitzea planteatzen zuten.

Industrialdearen egungo egoerak okupazio maila oso baxua du, enpresa oso gutxi daude instalatuta.

Inplikaturako eragile nagusiak: Ekimen pribatua



Kokapena/Udalerria: Oiartzun

Gaien esparrua: Jarduera ekonomikoaren sustapena



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

OIARTZUNDIK IGAROTZEN DEN TRAFIKOA HOBETZEKO AUKEREN AZTERKETA

31.


Duen kokapenagatik, Oiartzunek ibilgailu-fluxu handia du, A-8ko (egungo GI-20), N1eko eta GI-636ko bide-komunikazioen korridorean baitago.

Aragua-Lintzirin eremuan jarduera ekonomikoko eta komertzialeko eremu eta poligono ugari daudenez, eta Pasaiako portutik eta Erreenteriako hirigunetik hurbil egonik, Oiartzundik pasatzen diren errepideetan ibilgailu-fluxu handia sortzen da. Askotan, auto-pilaketa handiak izaten dira eta horrek ilarak eta istripuak izateko arriskua eragiten du. Horri, azken urteetan Oiartzunek, Erreenteriak eta Lezok izandako hirigintza mailako hazkundera gehitu behar zaio. Horrek ere eremuan zirkulazio handiagoa izatea eragin du.

Horrekin lotuta, azken urteetan, Aragua-Lintzirineko zirkulazioa eta Lezo-Gaintxurizketa korridorea lasaitzea lortu nahi izan da. Hori dela eta, Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (onartzeko zain) A-8 autobiderako sarbidearen eguneroko erabilera (egungo GI-20) eta pasabideko trafikoaren aldetik (batez ere) GI-636rako sarbidean ahalik eta eraginkortasunik handiena ahalbidetzearen alde egiten du, betiere, helburu horrekin beharrezkotzat jotako neurriak zehaztuz.


Donostialdeko Lurralde Plan Partziala arazo horri buruzko gogoeta eta proposamena egiteko baliagarri izango da.

Inplikaturako eragile nagusiak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Oiartzungo Udala, Eusko Jaurlaritza



Kokapena/Udalerria: Oiartzun

Gaien esparrua: Azpiegitura eta mugikortasun zerbitzuen hobekuntza



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

NEKAZARITZA EKOLOGIKORAKO EREMUA LEZON

32.

Nekazaritza-herrixka edo nekazaritza ekologikorako lur-bankua garatzea Lezoko udalerriko lurretan. Zonalde honetatik gertu Oiartzungo Udalak lehen sektoreari zuzendutako nekazaritza-herrixka bat ere garatua du lehendik.

Nekazaritza-jarduera ekologikoetarako erabiltzeko lur publikoak erreserbatzea da ekintzaren helburua. Nekazaritza-herrixka lursailetan zatituta dago eta azpiegitura komunak ditu (argia, ura, sarrerak, itxiturak...). Alokairu baten bidez, nekazaritza-herrixkako lurak erabiltzeko eta lantzeko aukera ematen zaie nekazariari.

Lezoko nekazaritza-herrixka eremu naturalen eta landaketan mosaiko batek osatzen du, horien artean daude azpiegitura komunak, alokairuko lursailak, salmentarako eta produktuen banaketarako zentroak, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza-zentroa eta jarduera hori sustatzeko hedapen-zentroa barne,

2013ko otsailean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxa Ekoguneak eta Behemendi Landa Garapeneko Elkarteak Gipuzkoako Nekazaritza Lurzoruaren funtseko lehen bost lursailak entregatu zituzten. Lezoko Urrullo baserri inguruan zegoen nekazaritza-herrixkakoak ziren.

Gaur egun, eremu honetan nekazaritzako produktuen eraldaketa-zentro bat ezartzea ari dira pentsatzen. Gaintzurizketa eremuko beste zonalde batzuetan udalerriko lursail publikoetan antzeko erabilerak egiten dira.

Inplikaturako eragile nagusiak: Lezoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia



Kokapena/Udalerria: Lezo

Gaien esparrua: Jarduera ekonomikoaren sustapena



PASAIKO BADIA BIZIBERRITZEKO EKINTZAK

Pasaia Badia Biziberritzeko ekintzetan zerikusia duten Erakunde Publikoak

	 Eusko Jaurlaritz GOBIERNO VASCO	 Gipuzkoako Foru Aldun.	 Donostiako Udala	 Erretereriako Udala	 Lezoko Udala	 Oiartzungo Udala	 Pasaia Udala	 Pasaia Portu Agin. Puerto de Pasaia Asociación Española de Puertos	Beste batzuk
1. HERRERA IPARRALDEA ETA MENDEBALDEA BERRANTOLATZEA	✓	✓					✓	✓	
2. PASAIKO ITSAS FRONTEA: TRINTXERPE ETA SAN PEDRO	✓						✓	✓	
3. PASAIKO ARRANTZAKO LONJA: ERABILERA PUBLIKORAKO ESPAZIO BERRIAK		✓					✓	✓	
4. EUSKOTREN-EKO TOPO GELTOKIRAKO SARBIDEAK	✓						✓	✓	
5. HERRERATIK PORTUKO ZIRKULAZIORAKO SARBIDEAREN IRTENBIDEAK		✓					✓	✓	
6. ZIRIZA ETXEA		✓					✓	✓	
7. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ESKAINTZA PUBLIKOIA PASAIAN	✓						✓		
8. IGOGAILUA ESCALERILLAS-EN		✓					✓	✓	
9. PROISA ERAIKINA							✓		
10. ULIA-JAIZKIBEL ETA ITSAS INGURUKO EKIMENAK	✓	✓	✓		✓	✓	✓		✓
11. TXINGURRI ERREKA			✓						✓
12. ARROBITXULO INGURUNEAREN BERRANTOLAKETA			✓						
13. ADIF-EN TRENBIDEEN KOPURUAREN MURRIZKETA ANTXON			✓				✓	✓	✓
14. EUSKOTREN-EKO TOPOA ANTXON ETA ERRETERIAN LURPERATZEA	✓			✓			✓		
15. LUZURIAGAN ETXEBIZITZEN ETA EKIPAMENDUEN GARAPEN URBANISTIKO BERRIA	✓						✓		
16. LUZURIAGA ERAIKINA		✓	✓				✓		✓
17. PAPIN-MOLINAO INDUSTRIALDEA			✓				✓		
18. ARTXIPI PARKEAREN EGOKITZAPENA BERE LOTURA LAU HAIZETAREKIN			✓						
19. TXALUPA MOTORDUN ZERBITZUAK HOBETZEA		✓					✓	✓	✓
20. PORTUKO JARDUERAK ERAGINDAKO ATMOSFERIKO, AKUSTIKOA ETA UREN KUTSADURA			✓	✓	✓	✓	✓	✓	
21. PASAI DONIBANEKO SANEAMENDUA	✓						✓		
22. ALABORTZA KALA BERRESKURATZEA	✓	✓					✓	✓	
23. NABALALDEA INDUSTRIALDEA	✓	✓		✓		✓	✓	✓	
24. BIDEGORRIA ETA LEZO-PASAI DONIBANE LOTURAKO ESPALOIAK ZABALTZEA		✓	✓		✓		✓	✓	
25. LEZOKO SAIHESBIDE BERRIA		✓			✓			✓	
26. LEZOKO ALTAMIRAKO BIRIBILGUNEA		✓			✓				
27. OIARTZUN IBAIA, ZUBITXO ETA ALTZATE				✓	✓	✓		✓	
28. LEZO-GAINTXURIZKETA PLATAFORMA LOGISTIKOA	✓	✓			✓	✓			✓
29. GI-2638 ETA N-1 ERREPEDEEN ARTEKO IPARRALDE-HEGO LOTURA		✓			✓				
30. ZINEALDEA-LINTZIRINGAINA									✓
31. OIARTZUNDIK IGAROTZEN DEN TRAFIKOA HOBETZEKO AUKEREN AZTERKETA	✓	✓				✓			
32. NEKAZARITZA EKOLOGIKORAKO EREMUA LEZON		✓			✓				



Ondorioak eta Gomendioak

ONDORIOAK

Egindako lanean oinarrituta ateratako ondorio nagusiak aurkezten dira ondoren:

1. Pasaiaiko Badian esku hartzeko beharra premiazkoa da

2. Adostasuna Badia biziberritzeko eta herritarren sinesgarritasuna berreskuratzeko lana egin behar izatearen inguruan

3. Eskualdearen etorkizuneko bokazioa zehaztu eta proiektu eragileak identifikatuko dituen hausnarketa estrategikoa behar da

4. Erakunde-eragileen artean harremanak normalizatzea beharrezko abiapuntua da

ONDORIOAK

1. Pasaia Badian esku hartzeko beharra premiazkoa da

Egindako azterketa sozioekonomikoa agerian utzi du Badiaren eremuak eta Pasaia udalerriak zehazki, nahiko kontrakoak diren adierazleak dituztela. Horiek agerian utzi dute gizarte, ekonomia eta ingurumen mailako kaltetze-egoera.

Per capita errenta maila Gipuzkoako batez bestekoa baino txikiagoa da (udalerri batzuk, gainera, sailkapenaren azken postuetan daude: Pasaia, Errenteria eta Lezo 86., 85. eta 80. postuetan daude, hurrenez hurren, lurraldeko 87 udalerrien artean). Gizarte-laguntzak jasotzen dituzten familien pilaketa ere handia da (Pasaian, oinarriko errenta jasotzen dutenen ratioa mila biztanleko 35ekoa da, eta larrialdi sozialeko laguntzak jasotzen dituztenen tasa mila pertsonatik 18koa da; kontuan izan behar da Gipuzkoaren kasuan, bi ratio horiek mila biztanleko 20koak eta 9koak direla hurrenez hurren).

Horrez gain, Gipuzkoako batez bestekoa baino enpresa industrial txikiagoak daude (14 enplegukoa Gipuzkoan, 5 enplegukoa Pasaian eta 11 Lezon –hori da batez besteko handiena duena–) eta eskualdeko jarduera ekonomikoa krisi ekonomikoaren eragin handia jasan du. Gainera, langabezia-tasak Gipuzkoa osokoak baino handiagoak dira (% 16 ingurukoak Pasaian eta Errenterian eta, aldiz, Gipuzkoako balioa % 14 baino txikiagoa da, eta bi udalerrietan enplegarritasuneko oso indize baxuak ikusi dira). Atzeraldi ekonomikoa bereziki handia izan da Pasaian. Establezimendu kopurua % 28 gutxitu zen 2008-2013 aldian (% -14 Gipuzkoan).

Bestalde, Badiako inguruneak biztanleri eta hiri mailako dentsitate handia eta garraio-azpiegituren pilaketa handia ditu (Portuaz gain). Azpiegitura horiek eskualdea mugatik eta mugarantz zeharkatzen dute alde batetik, eta Donostia dute beste aldean. Horiek kanpoaldearekin interkonexioa errazten duten arren, zati handiengan oso urbanizatuta dagoen lurraldeari presioa gehitzen diote.

Horren guztiaren ondorioz, ingurumeneko arazoak handiak dira eta, neurri batean, portuko jardueraren ondorioz. Dena den, azken urteotan hobekuntzak izan dira (Badiako urak eta atmosferako kutsadura txikiagoa, adibidez). Era berean, hirian berdegune gutxi dago, nahiz eta ingurunean babestutako gunen natural baliotsuak egon.

ONDORIOAK

2. Adostasuna Badia biziberritzeko eta herritarren sinesgarritasuna berreskuratzeko lana egin behar izatearen inguruan

Pasaia udalerrian ikusitako adierazle soziodemografikoak nabarmen okertu dira eta horrek berretsi egin du Pasaia Badia osoa biziberritzeko jarduera zehatzak abian jarri eta hitzartu beharra dagoela.

Lan honetan parte hartu duten eragileek behingoz eta gehiago atzeratu gabe Badia biziberritzeko lana dimentsio anitzeko ikuspegian (hirigintzakoan, gizarte mailakoan, ekonomian, ingurumenean eta abarretan) hasi beharra dagoela adierazi dute. Guztiak bat datoz azken urteotako "paralisia" gainditzeko eta ekintzak abian jartzeko une hauek aukera bikaina direla diotenean.

Gainera, bistakoa da konpromisoak hartzeko eta akordioak adosteko borondate politiko eragingarriaren inguruan herritarrak nazkatuta eta sinesgarritasunik gabe daudela. Gero eta agerikoagoa da herritarrek honako honekin lotuta duten iritzia: ez zaie lehenatasunik ematen interes orokorrei eta protagonismo politikoak onura orokorraren gainetik daude. Horrek biztanleriaren ongizatea kaltetzen eta ukatzen du.

Hori guztia dela eta, biztanleriak gero eta indar handiagoarekin eskatzen die administrazio publikoei erantzukizunak eta konpromisoak beren gain hartzea, orain arte "tokiz gaindiko" helburu eta interesak zirela, eta portuko jarduerak baldintzatu izan duten esparruari "etorkizuna emateko".

ONDORIOAK

3. Eskualdearen etorkizuneko bokazioa zehaztu eta proiektu eragileak identifikatuko dituen hausnarketa estrategikoa behar da

Lan horietan inplikaturik dauden erakundeek eta eragileek partekatutako ikuspegiak ez dagoela da lan honen egiaztapen agerikoenetako bat. Iraganean plan eta proiektu ugari diseinatu izan duten arren, ez da jarduera-ildo komunik ikusi (tokiko ikuspegiak direla esan dezakegu). Ondorioz, egindako lanean jasotakoa irismenari, edukiari eta jardueren inpaktuari dagokienez, ekimeneen zerrenda oso heterogeneoa da eta ez dator bat logika komunarekin edo lehentasun-ordenarekin. Hori beharrez, proposatutako erakunde bakoitzaren ikuspegi partikularraren arabera da. Oso ikuspegi partzialak dira eta tokioak diren gaiak edo proiektuak beste esparru batzuetan eztabaidatzearekin nolabaiteko deserosotasuna dagoela dirudi.

Eskualde mailako hausnarketa estrategikoa egiteko beharra ere eta bistakoagoa da Badia biziberritzeko prozesua modu irmoan bultzatu, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortu eta gizarte-beharrei erantzun liekeen proiektu eragilerik ez dagoela ikusita. Udalerriaz edo eskualdeaz gaindikoa hausnarketarik edo plan estrategikorik ez izateak agerian uzten du ez dagoela apustu koordinatu eta orokorrik. Gainera, biztanleriaren bizi-kalitatea epe laburrera eta ertainera begira hobetuko luketen proiektuak errealitate bihurtzeko beharrezkoa den bultzada-gaitasuna falta da.

Esparrua lurralde eta sektore mailako eskuduntza ugaritan banatuta egoteak eta, horrenbestez, administrazio ugariaren mende egoteak beharrezkoa den adostasun hori lortzeko konplexutasuna eta zailtasuna gehitzen du.

ONDORIOAK

4. Erakunde-eragileen artean harremanak normalizatzea beharrezko abiapuntua da

Egun bizi dugun blokeo-egoera (batez ere agerikoa da Portu Agintaritzaren eta Pasaiako Udalaren artean) urte askoan komunikazio nahikoa ez izanaren eta elkarren arteko ulermen-gabeziaren ondorioa da. Kontrajarritako interesak dituztelako Hiria-Portua harremanetan desadostasunak eta tentsioak maiz gertatzen diren arren, horrenbeste aldiz atzeratu izan duten proiektua, Pasaiako Badia biziberritzeko beharra dela eta, beharrezkoa da egoera hori gainditzea eta benetako arazoak konpontzea ahalbidetuko luketen adostasun-bideak bilatzea.

Bi erakundeak saiatu dira horren inguruko urratsak ematen eta horren erakusgarriak dira honako hauek: "Portuaren eta hiriaren arteko harreman-esparru berria" (Pasaiako udalbatzak onartu zuen 2013ko azaroan) eta "Lankidetzarako Protokolo Orokorra" (Portu Agintaritzak 2014ko urtarilean egindako proposamena da eta azkenean ez zuten sinatu nahiz eta, itxuraz, edukiarekiko adostasun maila handia izan). Bi ekimen horietako bakarrak ere ez zuten lortu aurrera egitea.

Eusko Jaurlaritza ere saiatu da impasse egoera hori desblokeatzen. Testuinguru horren baitan sartu behar da Pasaiako Badia Biziberritzeko erakunde arteko esparru-akordioaren proposamena. Horren helburua lan-esparru formalizatua eta gardena finkatzea eta biziberritze-lana egiteko ibilbide-orria adostea zen. Proposamenak, ordea, ez zuten emaitzarik izan; arrazoen artean, parte hartu zuten eragileek ez zutelako bere balioa eta egokitasuna berretsi, ekintza zehatzen inguruan lan egiteko beharrari lehentasuna ematen ziotelako.

GOMENDIOAK

Egindako azterketa eta ateratako ondorioen ostean gomendio hauek egiten dira:

1. Epe laburrera begira egin daitezkeen ekintzak abian jartzea
2. Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, Pasaiako Badia biziberritzeko lurralde testuinguru gisa
3. Pasaiako Badia biziberritzeko helburuak lortzen lagunduko duen Oarsoaldeko Plan Estrategikoa bultzatzea
4. Pasaiako Badiako errealitate ekonomikoaren eta enpleguaren inguruko azterketa espezifikoa
5. Herrerari buruzko erakunde mailako adostasuna berriro lortzea

GOMENDIOAK

1. Epe laburrera begira egin daitezkeen ekintzak abian jartzea

Lehenengo eta behin, beharrezkoa da herritarrek beren bizi-kalitatea hobetzen eragina izango duten proiektu zehatzak abian jarri direla hautematea. Horrekin lotuta, txostenean jasotako jardueren artean erakunde bakar baten mende dauden eta/edo beharrari eta egokitasunari dagokienez adostasuna lortu duten jarduera batzuk daude identifikatuta. Hori dela eta, ez litzateke atzeratu beharko horiek gauzatzeko prozesua.

Jarduera horiek ezartzeak ondorio argia eta positiboa izango du Pasaiako Badia biziberritzeko lanetan esku hartzeko borondate politikoaren sinesgarritasunean. Biztanleriak ez du ulertzen zergatik ez dituzten abian jarri epe laburrera begira bideragarriak diren, gauzatzearekin lotutako adostasuna dagoen eta horiek egiteak herritarren bizi-kalitatean ondorio positiboa izango luketen ekintzak.

Hori dela eta, epe laburrera begira exekutagarriak diren ekintzak bultzatu beharko dira. Ekintza edo proiektu bakoitzaren aurrerapena zehaztuko luketen mugari nagusiak finkatu, landu beharreko lanak, egutegia, aurrez ikusitako gastu eta sarrerak, eta parte hartuko duten eragileak zehaztu eta topa ditzakegun oztopoak eta haien izaera aurrez ikusi beharko ditugu lehenik eta behin. Material horrek guztiak osatuko du ekimen bakoitzerako "ibilbide-orria".

Hasteko, aipatu beharrezkoa da egoerak era askotakoak direla. Hori dela eta, kasu bakoitzaren arabera, egin beharreko jarduerak askotarikoak izan daitezke: azterketatik hasi eta lana gauzatzearaino artekoak. Ekintza batzuetan, aldez aurretik, herritarrek emandako lehentasun eta atxikipen mailak aztertu beharko dira. Dagokionean, landa-lanak egin beharko dira (inkestak edo lan-taldeak) Biziberritzearekin lotutako proiektu horien onurak jaso ditzaketen herritarren iritzia ezagutu eta ondoren eskaria kuantifikatu eta kualifikatu ahal izateko.

GOMENDIOAK

1. Epe laburrera begira egin daitezkeen ekintzak abian jartzea (jarr.)

- **Trintxerpe eta San Pedroko itsas frontearen biziberritzeari ekin** (2 . Ekintza), Lonjaren goiko terrazaren erabilera publikoa (3. Ekintza) eta Ciriza eraikinaren berreskuratzea kultura etxe eta gizarte etxe gisa erabiltzeko barne direla(6. Ekintza).
- **La Herrerako obra eta eraitsen ostean sortutako ondakinak erretiratu** (1 . Ekintza)
- **Topo geltokirako sarbidea** (4. Ekintza)
- **Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskaintza publikoa Pasaian** (7. Ekintza)
- **Ulia, Jaizkibel eta itsas inguruko ekimenak** (10 . Ekintza)
- **Txingurri errekan ekimenak** (11 . Ekintza)
- **Arrobitxulo ingurunearen berrantolaketa** (12 . Ekintza)
- **Artxipi parkearen egokitzapena eta bere lotura Lau Haizetarekin** (18 . Ekintza)
- **Txalupa motordunaren zerbitzua Mugi sisteman sartzea** (19 . Ekintza)
- **Portuko jarduerak eragindako kutsadura atmosferiko, akustikoa eta urena murriztea** (20 . Ekintza)
- **Pasai Donibaneko saneamenduaren hobekuntza** (21 . Ekintza)
- **Alabortza kalaren berreskuratzea** (22 . Ekintza)
- **Bidegorri bat egin eta Lezo-Pasai Donibane lotura-zatian espaloiak zabaltzea**(24 . Ekintza)
- **Lezoko saihezbide berria** (25 . Ekintza)
- **Lezoko Altamirako biribilgunean ekintza** (26 . Ekintza)
- **Oiartzun ibaia, Zubitxo eta Alzaten ekintza** (27 . Ekintza)
- **Oiartzundik igarotzen den trafikoa hobetzeko aukeren azterketa** (31 . Ekintza)

GOMENDIOAK

2. Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, Pasaiako Badia biziberritzeko lurralde testuinguru gisa

Lurralde Plan Partzialak eskualdearen etorkizuna zehaztuko duten funtsezko irizpideak ezarriko ditu (komunikazioak, ekipamenduak eta zerbitzuak, jarduera ekonomikoa, etxebizitza eta abarrak aintzat hartuta). Plan horren baitan, Pasaiako Badiaren Izaera Estrategikoko Esparrua Antolatzeke Plan Berezia prestatu beharra dagoela zehazten da.

Lurralde Plan Partzialak (LPP) Pasaiako Badia Biziberritzeko prozesuan sartutako tokiko administrazioen partaidetzako dinamika espezifikoak sortzeko eta sendotzeko eskaintzen duen aukeraz baliatu behar dugu.

3. Pasaiako Badia biziberritzeko helburuak lortzen lagunduko duen Oarsoaldeko Plan Estrategikoa bultzatzea

Eskualdeko hausnarketa estrategikoak Pasaiako Badia biziberritzeko prozesua orientatzen eta bultzatzen ere lagun dezake. Hausnarketa horrek eskualdea erreferentziako eta ekintzako unitate gisa kokatu beharko lukeen ikuspegia bultzatu beharko luke. Horren bidez, ikuspegi mugatuagoa, batez ere udalerrri mailakoak diren ikuspegien justapozizio soilean oinarritutakoa, gaindituko litzateke.

Eskualdeko Plan Estrategikoa egitea aukera bikaina da udalerrriek eskualdearen inguruko etorkizuneko ikuspegia partekatu eta nahi duten tokian kokatzen laguntzeko.

4. Pasaiako Badiako errealitate ekonomikoaren eta enpleguaren inguruko azterketa espezifikoak

Helburua eskualdeko jarduera ekonomiko eta industrial berrien doikuntza maila identifikatzeko lana egitea litzateke; hau da: industrialdeen egokitasuna, enpresek Administrazioaren rolaekin lotuta dituzten beharrak, eta horretan lanean ari diren eragileen arteko sinergiak eta koherentzia. Azterketa horiek erabakiak hartzeko oso lagungarriak izango lirateke. Zehazki, puntu horren baitan daude industrialde hauekin lotutako "maparen" ekintzak: Papin, Lintzirigaina, Nabalaldea...

GOMENDIOAK

5 Herrerari buruzko erakunde mailako adostasuna berriro lortzea

Herrera biziberritzearen elementu enblematikoa da eta beharrezkoa da haren aukeretan eta potentzialtasunetan sakontzea. Herritarrek Herrera aldarrikatzen dute Pasaia udalerriko (eta, batez ere, Trintxerpe eta ingurunekoa) gizarte eta hirigintza mailako desorekak gainditzeko aukera-esparru garrantzitsuen gisa.


Herrera, portu-erabileratarako edo portukoak ez direnetarako lurren banaketa eta honen inguruan egindako proposamenak aldakorrak izan dira denboran zehar. Uneotan, aukerak eragileen artean urrunen daudenak direla ikusi da. Hainbat fase bereiz dezakegu:

- Kanpoko portuaren aldeko apustua egitearen aurreko uneetan, portuko jabetzaren menpe bi sektoretan (Herrera iparraldea eta Herrera hegoaldea) eta erabileratan (lehenengoak ekipamenduetara eta hirugarren mailako jardueretara zuzendutako espezializazio argia du, eta bigarrenak portuko erabileratara eta bidekoetara bideratutakoa) egindako banaketarekiko adostasun handia.
- Azaleren birbanaketa eta desafektazio-prozedura abian jartzen da. Kanpoko portuaren finantzaketa-beharrarekin lotura du.
- Kanpoko portuari uko egitearekin batera, Portuko Agintaritzak zonifikazioaren birplanteamendua eta desafektazioari uko egin dio.

Pasaia Badia Biziberritzeko lanean aurrera egiteko aukeraren inguruko hausnarketa egin da, 2003an lortutako adostasun-egoerara itzultzea komeni dela esan daiteke. Aipatutako egoera *Pasaia Badia Portuko Zerbitzuen Eremuaren Antolamendurako Plan Berezia*, 2003ko urria-azaroa izenekoan jaso zen. Egoera hori, ordea, bere garaian bertan behera geratu zen kanpoko portuaren alde egindako apustua zela eta. Dena den, proposamen komunean aurrera egin ahal izateko abiapuntua dela esan dezakegu. Dokumentu horrek honako hau jasotzen du:

“(...) Plan Berezia, neurri handi batean, udal-planteamenduekin doikuntza eta adostasuna bilatzeko prozesuaren emaitza da, udal-plangintzekiko errespetu handiena, portuko jardueren eskakizunekin bateragarria izan dadin (...)”.

Puntu hori adostu zen testuinguruak hainbat elementu garrantzitsu biltzen zuen: ez zegoen kanpoko portuaren interferentziarik (“inkognita” hitzarekin aipatzen zen soilik); jardueraren une gorena zen (merkantzia-trafikoak bolumen maximoekin, gaur egungoak baino askoz ere handiagoekin) eta bilakaera-aurreikuspenak oso positiboak ziren. Gainera, portua herritarren erabileretarako berreskuratzeko prozesuarekin lotutako planteamendu posibilista egin zuen. Datu horiek guztiek baieztatzen dute orain adostasuneko giro hori berreskuratzea posible izango litzatekeela.



Eranskina Burututako bileren zerrenda eta egindako elkarrizketak

BURUTUTAKO BILERAK

Jarraian, lan hau prestatzeko prozesuan egindako bileren eta Eusko Jaurlaritzak hala proposatuta IKEIk egin dituen elkarrizketen xehetasunak daude zehaztuta.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak egindako bileretarako deialdia honako eragile hauei zuzendu zitzaien: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Oiartzungo Udala, Pasaiako Udala, Pasaiako Portu Agintaritza eta Estatuko Portuak .

Bilera	Helburua	Parte-hartzaileak	Data eta lekua
1. BILERA	Proiektua abian jartzea eta IKEIren lan-programa aurkeztea	Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako Foru Aldundia	2014ko Uztailak 17 Donostia
2. BILERA	Lehen emaitzen aurkezpena egindako elkarrizketen txandaren ostean (Jardueren mapa).	Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako Foru Aldundia Donostiako Udala Lezoko Udala Oiartzungo Udala Pasaiako Portu Agintaritza	2014ko Azaroak 19 Donostia
3. BILERA	Testuinguru sozioekonomikoaren aurkezpena	Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako Foru Aldundia Errenteriako Udala Lezoko Udala Oiartzungo Udala Pasaiako Portu Agintaritza	2014ko Abenduak 11 Donostia
4. BILERA	Lanaren itxiera eta Txostenaren aurkezpena	Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako Foru Aldundia Errenteriako Udala Lezoko Udala Oiartzungo Udala Pasaiako Portu Agintaritza	2015ko Martxoak 26 Donostia

EGINDAKO ELKARRIZKETAK

Erakundea/Agentea	Data
EUSKO JAURLARITZA	2014-11-04
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	2014-09-18
	2014-10-07
PASAIKO UDALA	2014-11-12
LEZOKO UDALA	2014-11-03
ERRETERIAKO UDALA	2014-11-04
OIARTZUNGO UDALA	2014-11-14
DONOSTIAKO UDALA	2014-11-10
OARSOALDEA ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIA	2014-11-17
PASAIKO PORTU AGINTARITZA	2014-10-27
LA HERRERA HERRIRA	2014-11-12
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA	2014-09-15